Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# PATIO PAREKIDE ETA HEZITZAILE BAT ERAIKITZEKO BIDEAN

## GRADU AMAIERAKO LANA


EGILEA: Aramaio Basterretxea, Mikel

ZUZENDARIA: Etxeazarra Escudero, Ibon


**2020**

# LABURPENA

Diseinu tradizionalak, genero ikuspegi hegemonikoari erantzun dio orain arte, ondorioz ikasleen hezkuntza baldintzatua eta desorekatua izan da jolastokietan. Espazio ludiko eta hezitzaile honetan, aske bezala ikusten dena, murriztailea izan da askorentzat eta guztiek normaltasun oso barneratu izan dute horrela izan behar zela. Azken urteetan ordea proiektu eraldatzaileen loraldia eman da. Ikastetxe askotan proiektu berritzaile eta parekideagoak lortzeko beharra sentitu dute. Lan honetan, proposamena eskola eragile guztien parte hartzearekin aurrera eraman da, garrantzi berezia ikasleek izan dutelarik. Kirol inbasiboen eremua, nagusia edo erdigunea dinamizatu nahi izan da, haurrek beraiek aukeratutako jarduerak proposatuz, jolas eta jostailu ez sexistak bultzatuz eta jardueren aniztasuna bilatuz. Ikasleen parte hartze librea errespetatu da inor derrigortu gabe eta irakasleen lana aktiboa izan da, prozesua ebaluatu eta dinamizatuz.



**Hitz gakoak:** jolastokia, hezkidetza, parte-hartzea, jolas librea, eremu hezitzailea.



# RESUMEN

El diseño tradicional ha respondido hasta ahora a la perspectiva hegemónica de género, por lo que la educación de los alumnos ha sido condicionado y desequilibrado en los patios. Este espacio lúdico y educativo, que se ve como libre para muchos, ha sido restrictivo y todos han interiorizado plenamente la normalidad de que así debía ser. Sin embargo, en los últimos años se ha dado un aumento de los proyectos coeducativos. En muchos centros, han sentido la necesidad de conseguir proyectos más innovadores e igualitarios. En este trabajo, la propuesta se ha llevado a cabo con la participación de todos los agentes escolares, teniendo especial relevancia los alumnos. Se ha querido dinamizar el ámbito, principal o céntrico de los deportes invasivos, proponiendo actividades elegidas por los propios niños y niñas, impulsando juegos y juguetes no sexistas y buscando la diversidad de actividades. Se ha respetado la libre participación del alumnado sin forzar a nadie y la labor del profesorado ha sido activa, evaluando y dinamizando el proceso.



**Palabras clave:** patio, coeducación, participación, juego libre, ámbito educativo.

# AURKIBIDEA


**0. SARRERA**......1

**1. JOLASTOKIA ESKOLA ORDUETAN** ......2

1.1. ZER DA JOLASTOKIA EDO PATIOA?......2

1.2. JOLASTOKIEN POTENTZIALTASUN HEZITZAILEA......2

1.2.1. Jolasaren eragina garapenean......3

1.2.2. Jolasguneak eta jolas librea eskola orduetan......5

1.3. KANPO ESPAZIOAREN ANTOLAKETA ......6

**2. HEZKIDETZA JOLASTOKIETAN**......7

2.1. PAREKIDETASUNA LORTZEKO PEDAGOGIA ASKATZAILEAK ......7

2.2. IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEKO GAKO OROKORRAK ......8

2.3. JOLASEN ARTEKO HIERARKIZAZIOA......9

2.4. GENEROAREN ERAGINA ESPAZIOEN ERABILERAN ETA ANTOLAKETAN .....10

**3. JOLASGUNEEN EGUNGO ERREALITATEA**......13

3.1. ESPAZIOAREN DISEINUA ETA ERABILERA ......13

3.2. SEXISMOA......14

3.3. MONOTONIA ETA PASIBOTASUNA ......15

**4. JOLASGUNEAK BIZITZEKO MODU BERRIAK**......16

4.1. HAURREN PARTE-HARTZEAREN OINARRIAK......16

4.2. PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO BALIABIDEAK ......18

**5. JOLASGUNEEN EREDU HEZIGARRIAGOAK** ......20

5.1. HEZKUNTZAREN ERRONKAK ......20

5.2. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK ......22

**6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA** ......24

6.1. TESTUINGURUA......24

6.2. PROZEDURA ......26

6.3. TRESNA ......27

6.3.1. Ikastetxearen kanpo espazioa aztertzeko galdetegia......27

6.3.2. Espazioaren sektorizazioa eta segregazioa aztertzeko behaketa ......29

6.3.3. Jarduerak aukeratzeko fitxa......30

6.4. DIAGNOSTIKOA ......30

6.5. ESKUHARTZEAREN GARAPENA......32

**7. ONDORIOAK**......34

**8. BIDE BERETIK IKERTZEN JARRAITZEKO AUKERAK**......35

**9. BIBLIOGRAFIA** ......36

## ERANSKINAK

1. ERANSKINA: ESPAZIOAREN ERABILERA JOLASTOKIAN
2. ERANSKINA: EAE ETA INGURUKO ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK
3. ERANSKINA: ARAUDI MAILAKO ESPARRUAK

# 0. SARRERA

Hezkuntza sistemak aldaketa ugari bizi izan ditu hainbat legeren bitartez denbora tarte laburrean: LOGSE 1990, LOCE 2002, LOE 2006 eta gaur egun indarrean dagoen hezkuntza legedia, LOMCE 2013 (EAEren kasuan Heziberri 2020). Horren ondorioz, hainbat egokitzapen eta eraldaketa izan ditu azken hamarkada hauetan, formazioan eta ezagutzan sakonduz, proposatu diren aldaketa kurrikularrak aurrera eramanez eta baita baliabide pedagogikoak garatuz (Marín, Molins, Martínez, Hierro, eta Aragay, 2010).

Era berean, jendartea ere asko aldatu da eta agerian geratu dira genero artekotasunean harreman aldaketak behar direla, baina ez dira islatzen eskoletako hainbat eremutan, non harreman guztiz hierarkizatuak mantentzen diren. Hori horrela, hezkidetza helburu duen eskola batek, bere eremuen berrantolaketa bat beharko luke (Saldaña, 2018).

Eskola sistema arautua da, baina arau horietatik libre samar geratzen den esparru bat da jolastokia. Harreman naturaletarako berezko tokia dugu: bertan finkatzen dira, ordu luzetako jardunaren ondorioz, adiskidetasun loturak eta baita lehenbiziko haserrealdiak, lehiak eta desengainuak ere. Zenbait haurrentzat litekeena da atsedenaldia izatea aukera bakarra beste haurrekin elkarreraginean aritzeko. Horretarako, aukera gutxi dago eskolako gela askotan eta baita gelatik kanpo ere, izan ere, egungo gaztetxoen lagun ia bakarrak telebista eta ordenagailuetako jolasak dira, eta horrela, ez dago norekin aritu (Jarret, 2002).

Eskola bateko jolastokia ikastetxe baten erakusleiho paregabea da eta, egun, hainbat eta hainbat eskolatako jolastokiren egiturak ez die behar den moduan erantzuten gaur egun beharrezkoak diren aukera berdintasuna, errespetua eta aniztasuna bezalako oinarri hezitzaileei; jolastoki horiek zaharkituta daude, gainera (Saldaña, 2018).

# 1. JOLASTOKIA ESKOLA ORDUETAN

Jarraian datozen puntuetan, autore ezberdinen patioaren inguruko definizioak, jolastokiek haurrengan duten balio hezitzailea eta kanpo espazioak antolatzerakoan kontutan izan beharreko alderdiak azalduko ditut.

## 1.1. ZER DA JOLASTOKIA EDO PATIOA?

Jolasgunea edo patioa, jolasa ematen den espazio moduan ulertzen dugu. Egitura, material, kolore, tamaina eta erabileraren arabera ezberdinak izan daitezke, bai lekuaren arabera eta baita leku berean garaiaren arabera ere. Inguru hori definitzea oso konplexua da, Virginia Navarro Giménezek dioen bezala "patioa espazio poliedrikoa delako, alderdi asko dituena". Gainera eszenatoki publiko eta eskola eraikin bateko ohiturak uztartzen dira bertan (Antolin et al., 2017). Autore ezberdinek honela definitu izan dute patioa.

Patioa ikastetxearen eraikinetik kanpo dagoen haurrentzako espazioa da. Ikasgelan ez bezala, umeek libreki aukeratzen dutelako zer eta norekin egin (Pellegrini eta Davis, 1993). Ikasleek berez, gustuz eta beraien kabuz aisialdiko jarduerak burutzen dituzten espazioa da. Horregatik irakasleen arreta gehiago eskatu behar luke (Gómez, 1995).

Jolasgunea, ikasleen espazio –denbora  testuingurua da, non, haurrek askatasunez beraien joko propioak antolatu, arautu eta rolak banatzen dituzte (Jarret, Farokhi, You eta Davies, 2001 in Contreras, Prieto, Leon eta Infantes, 2018). Gainera, ikasle guztien oniritzia dauka jolasguneak normalean, betebeharrik gabe eta irakasleen aginduetatik aske sentitzen direlako (Abraldes eta Argudo, 2008).

Patioak, haurren jolaserako hautatutako, erreserbatutako, sortutako eta diseinatutako kanpo espazioak dira (Frost, 2012).

## 1.2. JOLASTOKIEN POTENTZIALTASUN HEZITZAILEA

Jolastokiaren berezko izateari erreparatuko zaio atal honetan. Horretarako, jolas-ordu terminoaren beraren zenbait definiziotatik abiatuko da eta, ondoren, jolastokiak zenbateko garrantzia duen aztertuko da. Eta horien argitan ikusiko da jolastokiak bitarteko hezitzaile gisa zer balio duen.

Hasteko, Pellegrinik eta Davisek (1993) atsedenerako momentu bezala definitzen dute jolas-ordua. Atseden hartzearen ideia hau oso interesgarria da. Izan ere, adin eta berezitasuna edozein dela ere, pertsona guztiek behar dute atsedena gogotsu sentitu eta arretari eusteko; jolas-ordua errutinaren baitan atseden hartzeko unea baita (Jarret, 2002). Ikertzaile berarekin jarraituz, atseden uneak ahalbidetu egiten du errendimendu akademiko hobea izatea, hainbat atseden une izanez gero

arreta handiagoa izango baita, eta egindako esfortzua banatuta egongo da. Ildo beretik, Picak (2008) dio ikasleek arreta handiagoa eskaintzen diotela ikasgelan burutzen den lanari eta eraginkorragoak direla atsedena hartu badute.

Ikusi denez, badira jolas-orduaren inguruan jardun duten hainbat ikerlan eta, definizioa ematerakoan, guztiak bat datoz esatean deskantsua eta jolasa direla jolas-orduaren xede nagusiak.

Jolasa, pertsonok berezkoa daukagun jarduera unibertsal bezala definitzerakoan aditu gehienek bat egiten dute. Beti ere, testuinguru soziokulturalaren, garaiaren eta lekuaren arabera aldatzen dena (Zucchi, 2017). Testuingurua eta garaiaren arabera aldatu arren, jarduera unibertsal bat da, kultura guztietan jolasten baita. Silvia Blanchen arabera gainera, hezkuntza tresna bezala erabili izan da kultura guztietan, baita gaur egun ere. Izan ere, haurrak jolasean daudenean, adi eta motibatuta egoteaz gain, beharrak ase, erronkak gainditu, jakin-minei erantzun, rolak ikasi eta zailtasun emozionalak kudeatzera heldu baitaitezke (Vallejo, 2015).

### 1.2.1. Jolasaren eragina garapenean

Aditu ezberdinen arabera, jolasak haurren garapenean eragina du. Mugimendua garapenaren alderdi garrantzitsuenetako bat da bizitzako lehen urteetan. Gure mugimenduak bakarrak dira eta horregatik garenaren zati bat dira. Besteekin eta munduarekin elkar-eragiteko aukera ematen digute eta ikasteko oinarri dira (Andrés, 2017). Vygotskik esaterako garapenaren oinarrizko faktoretzat jotzen zuen jolasa (Vygotski, 1934). Edota Maite Garaigordobilek haurren garapen integralerako ezinbesteko aktibitate bezala definitzen du jolasa (Garaigordobil, 2003). Haur batek bere mugimenduak ingurunetik zentzumenen bidez xurgatzeko gai izan denaren arabera garatzen ditu, horregatik oso garrantzitsua da eskola jolastokia behar bezala diseinatzea umeen mugimendu guztiei erantzun ahal izateko (Andrés, 2017).

Jolasaren eraginaz ari garenean, garapenaren bost alderditan eragiten duela esaten da.

- *Alderdi psikomotorea*

Haurren mugimendu-garapena erabakigarria da hauen garapen orokorrerako. Gorputz sentsazio atseginak emateaz gain, hazte, banatze eta independentzia motorerako prozesuan laguntzen du. Jarduera honekin gorputz-eskema ezagutu, koordinazioa eta oreka landu, gaitasun sentsorialak garatu eta abilezia eta bizitasuna lantzen dira. Horregatik, jolasa eta jostailuak motrizitate finerako zein globalerako tresna erabakigarri bezala ikusten dira (Chamorro, 2010).

- *Alderdi kognitiboa*

Piageten hainbat ikerketetan egitura mental eta ekintza ludikoen arteko lotura agertu izan da. Jolasaren bitartez, haurra hainbat egoeren aurrean kokatzen da eta egoera horien soluzioa bilatu

behar du, inguruaren eta bere arteko oreka bilatuz. Jolasak arreta, memoria, irudimena, sormena edota pentsamendu zientifiko eta matematikoa garatzen laguntzen du (Rodriguez, 2006).

● *Alderdi afektiboa*

Sortu al duen plazerretik hasi eta ematen diren gatazketaraino, jolasa emozioekin lotu dezakegu zuzenean. Gatazka desberdinak konpontzen ikasteko abagunea ere eskaintzen die jolas-orduak, nork bere akatsetatik ikasiz pertsona bezala hezteko (Gras eta Paredes, 2015).

Guzti horiek kudeatzeak, emozioen garapenarekin du zerikusia eta adimen emozionala lantzea ezinbestekoa da garapen integralerako eta identitatearen garapenerako (Chamorro, 2010).

● *Alderdi soziala*

Ikaslea gainontzeko ikaskideekin elkarrekintzan dagoen heinean sozializazio prozesua ematen da patioan eta ikasgela barruko jardunarekin alderatuz, askatasun gehiago ematen du une honek (Chaves, 2013). Haurrek beraien izatea modu libreagoan adierazten baitute hor irakasleen gidaritzapean egon gabe (Olano, 2007 in Larramendi, 2016).

Picak (2008) ere ideia hori nabarmentzen du jolastokiak sozializaziorako tresna sendoa direla esanez. Izan ere, ikasleen arteko elkarreragite maila oso altua da bertan eta bizikidetzarako balio garrantzitsuak jaso ditzakete jolas-orduan.

Tutoretza orduetan irakasleekin errespetua, lankidetza, solidaritatea eta berdintasuna bezalako balioen inguruan ikasitakoa ez da barneratzen, praktikan jartzen ez bada.

Hortaz, esan daiteke sozializaziorako funtsezko elementua dela eskolako jardunaldiaren barruan, bertan hasten direlako haurrak beraien gaitasun soziala, afektibitatea eta enpatia garatzen (Gras eta Paredes, 2015).

● *Alderdi sortzailea*

Haurrek adierazteko beharra izaten dute, irudimena eta sormenari atea zabalduz. Jolasak aspektu honetan modu naturalean eragiten du, joko-jolasak eta haien arauak asmatu, rol desberdinak hartu,.. Maila ludikoan, jolasak eskaintzen duen sorkuntzarako aukera bereganatzera behartuta daude haurrak, beraien abileziak erakutsiz, adierazpen, ekoizpen eta asmaketan (Chamorro, 2010).

Gaitasun pertzeptibo motorrak hobetzeko biderik onena eta naturalena jolasa da eta patioan jolasa uneoro agertzen da. Joko eta jolasak umeei ingurumena ulertzeko eta horrekin elkar eragiteko aukera ematen die mugimenduen bitartez eta zentzumen guztien erabilerarekin. Garapen pertzeptibo motor on batek kirol arrakastak, hartu eta pentsatu beharreko erabakiak, garapen akademikoa eta lorpenak bultzatzeaz gain, kideekin elkarrekintza soziala ere sustatzen du (Wortham eta Frost, 1990).

### 1.2.2. Jolasguneak eta jolas librea eskola orduetan

Joko-jolas fisiko eta ez estrukturatuak estresa gutxitzen du. Haurrek lasaitzeko eta barruan dutena kanporatzeko aukera dute jolas-orduan, izan ere, ikasgela barruan eduki ezin dituzten zenbait jarrera izan ditzakete, hala nola, garrasi egin dezakete edota asko mugitu (Pica, 2008).

Horrez gain, jolasa garrantzitsua da sistema immunologikorako eta pertsonen ongizaterako. Autore berak dio ongizate eta osasunari dagokionez, gorputzaren mugimenduarekin batera burmuina aktibatu egiten dela eta horrek errendimendu handiagoa izatera eramaten du norbanakoa. Honek frogatzen du emaitza akademiko hobeak lortu izan ohi direla pertsona aktiboengan inaktiboengan baino. Horri gaineratu behar zaio haurren ehuneko handi batek, gaur egun, obesitate eta gehiegizko pisu arazoak dituela, hortaz, jolas-orduetan zenbat eta mugimendu eta jarduera fisiko gehiago egin orduan eta lagungarriagoa izango da haur horientzat (Pica, 2008).

Hortaz, nabarmen geratu da ikastetxeetako jolastokiek garrantzia dutela, atseden gune eta sozializazio gune direlako, eta baita burua argi izateko eta arretari eusteko ere.

Garrantzi hau Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean bertan adierazten da (236/2015 Dekretua, 2016). Bertan ezarrita dago Lehen Hezkuntzan, gutxienez, astero 25 eskola-ordu egongo direla maila bakoitzeko eta, horrez gain, egunero 30 minutuko jolas- ordua. Hau da, astean, gutxienez, 2 ordu eta 30 minutu eta urtean 525 ordu ibiliko dira ikasleak jolastokian. Gorputz Hezkuntza edo atzerriko hizkuntzari ematen zaizkion orduak baino gehiago edo Euskara eta Gaztelania bezalako ikasgaien neurrian. Horri gaineratu behar zaio eskolan bertan bazkaltzen duten ikasleek beste ordubete edo ordu eta erdi ematen dutela bertan (Marín, 2013).

Azken urteetan, jolaserako kanpo espazioaren erabileran kaleak lehen zuen pisua galdu du eta haren lekua ikastetxeetako jolastokiak hartu du kasu askotan (Vives eta Galarraga, 2015). Virginia Navarrok dio “gaur egun eskola- patioek inoiz baino garrantzi handiagoa eskuratu dute gizartean, haurtzaroko historia osoan zehar lehen aldiz jolas librea desagertu da eta horren ondorioz haurrek naturarekiko duten harremana asko murriztu dute” (Antolín et al., 2017). Haurren Jokoen Politika Foroak (mundu osoko jokoen inguruko Erresuma Batuko espezialistek osatuta) haurtzaroan krisi bat dagoela ohartarazten du, bizitza modernoak jolasa murriztu duelako, batez ere aire librean egiten den hori. Errealitate horrek umeen hazkunde naturala eta jolasterakoan gertatzen den garapena mugatzen ditu (Play England Freedom to play, 2019). Beraz, jolastea ezinbestekoa da haurraren izaeraren eta gorputzaren eraikuntzarako (Vives eta Galarraga, 2015) eta gainera esan daiteke jolasteak haur zoriontsu eta osasuntsuak eraikitzen dituela (Play England Freedom to play, 2019). Espazio ireki hau neska-mutil askorentzako egun osoan zehar jolasteko eta bertan lagunekin elkar eragiteko duten leku eta momentu bakarra da. Gainera eskolako patioa ume askok bizi eta esperimentatzen duten lehendabiziko espazio publikoa da (Antolín et al., 2017). Aipatutako jolas libre hori, ezin dugu “hutsarte” edo “deskantsatzeko denbora” bezala ikusi, eskola jardueraren

elementu bat gehiago delako. Hortaz, irakasleen ikuspuntutik jolastokia ezin da zaintzarako leku bat izan, espazio hezitzailea baizik. Umeek patioan jolasten duten bitartean, plazerraren laguntzaz hezi egiten dira, jolastokiak elementu psikomotor, soziomotor eta harremantzekoak dituelako eta horiek ikaslearen izaera garatzen laguntzen dutelako (Mazón eta García, 2005).

## 1.3. KANPO ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

Interesgarria da diseinu jakin batek ikasleen bizipen eta garapenean nolako inplikazioak dituen ikustea. Azaleko begirada batetik, jolastokia nahiko espazio librea da, zarata handia, haur batzuk baloiarekin, beste batzuk saltoka eta korrika eta beste haur batzuk txokoren batean jolasean edo solasean. Begirada zorrozten badugu, ordea, desoreka batzuk atzeman ditzakegu, hain azalekoak ez direnak.

Aspaldi sortu ziren jolastokiek iraun dute denboran zehar eta funtsezko diseinuari eutsi diote gaur egun arte. Hori dela eta, eskola gehienetako patioaren argazkia antzekoa da (Cols eta Fernández, 2016) espazio sinplifikatua eta homogeneoa eta zaharkitutako instalakuntza modelo bat jarraitzen duena (García, 2016).

Jolastokiak esplorazioan aritzeko, esperimentazioan aritzeko eta nahiko modu askean ibiltzeko espazio bat izan behar du. Espazio horrek ahalbidetu behar dio ikasleari ezagutza nahikoa bere nortasuna garatzeko. Horregatik, espazio horiek dibertsitate handikoak izan behar dira (Navarro, 2013), ahalik eta aukera gehien eman behar baitute eta ahal bezain kitzikagarriak izan behar dira. Izan ere, ezaugarri horiei esker, informazio eta bizipen ugari izango dituzte ikasleek; zenbat eta bizipen gehiago izan orduan eta aberasgarriagoa izango da beraien garapen pertsonala ere .

Bestalde, Rosetek (2013) bereizketarik gabeko jolas goiztiarrak hezkidetza planteatu eta emakumezkoak ahalduntzeko oinarrietako bat direla aipatzen du. Emakume ahaldunduak lortu ahal du bere gaitasunak esparru guztietan garatzea, gizonezkoen botere maila bera har dezake, jendarteko eta kulturako elementuak aldatuko badira, behinik behin. Beraz, ikusi beharra dago, jolastokian denentzako aukerak ematen diren eta mugak non dauden.

# 2. HEZKIDETZA JOLASTOKIETAN

Jarraian ikastetxeetan hezkidetza lantzeko jolastokietan kontuan hartu beharreko neurriez, jarduera eta jostailuek izan ditzaketen sexuarekiko loturaz, ikasleak sexuaren arabera espazioan nola banatzen diren eta jolasen hierarkizazioaren inguruan arituko naiz.

## 2.1. PAREKIDETASUNA LORTZEKO PEDAGOGIA ASKATZAILEAK

Hezkidetza, pertsonak bere banakotasun eta berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da. Edozeinentzat baliagarria izango den pertsona eredua bultzatzea du helburu, estereotipo tradizional eta zaharkituak (eredu maskulinoa eta femeninoa) alde batera utziz (Bizkaiko Urtxintxa eskola, d.g.a.).

Eskola mistoaren eredua gainditzen du, honek ez duelako hezkidetza bermatzen; heziketak premia bat du eta hori ahal bezain azkarren asetu behar du, ikastetxeetan ikasle eta irakasleen jokabide eta kontzientzia sexistak deusezteko (Tomé, 2017).

Hezkidetza eredua, Fresnedo eta Gabilondoren (2018) hitzetan, gizon eta emakumeei ezarritako rolak, jokabideak eta balioak kontutan hartu gabe heztea da, irizpide sexistak alde batera utziaz. Eta baieztapen hau egiten dute: "Hezkidetzak, sexutik harago, denon gaitasunak garatzen laguntzen du eta errraztu egiten ditu identitate zabalak eraikitzeko bideak. Etorkizun alternatiboa lortu nahi duen hezkuntza eredua da, neskentzat eta mutilentzat aukera berdinak izango dituen jendartea lortu nahi du" (7. or).

Sánchez eta Iglesiasen (2017) esanetan berriz, hezkidetza terminoaren sorrera jendarte sexista (desorekatua, bidegabea eta baztertzailea) eraldatu, harreman hierarkizatuak ezabatu eta norbanakoen askatasunean oinarrituko den gizarte eredua bermatuko duen proiektu politiko gisa ulertu behar da. Emakume nahiz gizona izan, erreferenteak birplanteatu eta emakumezkoa zein gizonezkoa izatea zer den definitu beharra dago, gaur egungo testuinguru historikoan (Blanco, 2007).Horrez gain, genero indarkeriarekin zerikusia duten arazoak ere ekidingo dituzte, hala nola, indarkeria fisiko eta psikologikoa. Gizarte hobeago bat sortuko da, non, neskak eta mutilak pertsona bezala garatu eta hasiko diren (Castilla, 2008).

Horregatik, hezkidetza proiektu batean murgiltzeak, nolako heziketa eredua nahi den hausnartzea ezezik, bere baitan garatuko diren eduki, balio, sexismoa identifikatzeko estrategiak eta sustatu beharreko jokabideak aukeratzea eskatzen du, genero erlazioak alde batera utzita (Sánchez eta Iglesias, 2017).

Beraz, jolastokia bitarteko pedagogikoa dela onartzen bada, hezkidetza eremu horretara ere zabaldu behar da.

## 2.2. IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEKO GAKO OROKORRAK

Hezkidetzaren ikuspegitik hobekuntzak proposatu behar direnean, aurretik duguna ezagutu eta onartu behar da. Onartzeak ez du esan nahi konformatzea, baizik eta egoeraz jabetu eta aldaketak egitean hori kontuan hartzen dugula. Egoera birziklatzea da: desegin berregiteko, eraikitzeko eta eraiki desegiteko.

Ohitura eta sinesmen sexistak desegiten diren bitartean, berdintasunean oinarritutako ideia, jarrera, harremanak,…eraiki behar dira. Adibidez; nahiz eta edozein ikastetxetan emakumeek matrikula egiteko eskubidea izan, emakumeek edozein ikasketa egiteko ahalmena dutela ez badago ohitura edo sinesmenetan sustraituta, zaila izango da hainbat lanbidetan emakumeak ikustea. Horrek erakusten digu, aukera zabaltzearekin batera, eraikitzearekin batera, zaharkitua geratu dena desegin behar dela, eta askotan azken hau zailagoa izaten da.[1]

Hezkidetza paradigma aldaketa bat da eta paradigma aldaketa horretan identitatearen garapena ardatza da. Identitatearen garapenaren garrantzia curriculumean ere agertzen da (Heziberri 2020 markoan oinarrituta), zeharkako konpetentzien artean norberaren autonomiarako konpetentzia: Izaten jakitea dugu. Norberaren emozio, irudi, jokabide, erabaki, erantzunkizun eta pentsamenduen autoerregulazioari buruz hitz egiten du.

Horregatik, hezkidetzaren aldeko apustua egiten denean kontutan izan behar dira argibide batzuk:[2]

- Hezkidetza lantzea ez da lan gehiago egitea izan behar, lan bera beste modu batean egitea baizik.
- Eskolan islatzen dena gizartean dagoen sexismoaren ondorioa da.
- Eskola gizartea eraldatzeko eragile esanguratsua da.
- Gaur egun ere, ikasketa eta aukera profesionalak ez dira askatasunez hartutako erabakiak. Genero agindu asko daude oraindik.
- Aukera berdintasunaren aldeko borroka, emakume zein gizonen aldeko borroka da.
- Norberak dituen estereotipoak eta bere transmisioaren inguruko hausnarketa sakona egin behar da.
- Asmoa ezezik, prestakuntza ere beharrezkoa da ondoren praktikara eramateko.
- Adin guztietan lantzeko beharra dago.

[1] *Ikastetxeko espazioen azterketa genero ikuspegitik*. Prest Gara, 2019/2020.
[2] *Hezkidetzan esku hartzen*, on-line ikastaroa. EHU, 2014.

## 2.3. JOLASEN ARTEKO HIERARKIZAZIOA

Jolas desberdinek zenbait gaitasunen garapena errazten dute, eta jostailuak jolasa aberasteko baliabideak dira. Gaitasun eta jarrera horiek jostailuen bidez indartzen dira transmititzen dituzten baloreengatik. Hori dela eta, jostailuek izugarrizko garrantzia dute haurren hezkuntza prozesuan, ez baitira soilik ondo pasatu eta entretenitzeko. Berez, jostailuak ez dira onak edo txarrak, hauen egokitasuna ematen diogun erabileraren araberakoa izango da (Osoro, 2016).

Horrez gain, irakasleok ikasleengan daukagun iritziak eragin handia dauka. Askotan inkontzienteki mutilenganako ditugun aurreiritziak honakoak dira: independentea, zabala, bihurria, bortitza eta segurua. Aldiz, neskengan ditugunak oso desberdinak dira; menpekoa, pasiboa, pazientziaduna, lasaia eta zihurgabea (Saldaña, 2018). Errealitate hori islatuta gelditzen da bakoitzari ematen zaizkien jostailuetan, neskenak zaintzara bideratuta dauden bitartean mutilenak aktibotasuna sustatzen dute gehienetan (Gallastegui, 2018). Balio guzti horiek hezkuntzaren bitartez transmititzen dira, baita gizartean eraikitako erreferente eta errepresentazioen bitartez ere (Larramendi, 2016).

Jolas eta jostailu desberdinak erabiltzen, berezko generoari dagozkion ezaugarriak ezagutuko dituzte neskek zein mutilek. Jolasen artean, eta hamaika faktore direla medio, hierarkizazio sinbolikoa ematen delako. Ondorioz, jostailuek, generoaren araberako erabilera eta estereotipo sexistak barneratu, birproduzitu eta iraunaraztearen funtzioa ere badute.

Horregatik beharrezkoa da eskaintzen, onartzen edo indartzen ari garen ereduen analisi kritiko bat egitea:[3]

| JOLAS EDO JOSTAILU SEXISTAK | JOLAS EDO JOSTAILU EZ SEXISTAK |
|---|---|
| Neskak edo mutilak jolasteko aukera ematen ez dutenak. | Sexuaren gainetik jolastu ahal izateko aukera ematen dutenak. |
| Gizona edo emakumea izatea “irakasten” dutenak. | Sexuari lotutako genero rolak errepikatzen ez dituztenak. |
| Genero desberdintasunak markatzen dituztenak. | Generoak garatzen dituen gaitasunak baino askoz gehiago lantzeko aukera ematen dutenak. |
| Heldu eta umeen arteko harremana, modu itxian, generoaren araberako jolasetan bideratzen dituztenak. | Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematen dutenak. |
| Harremanak sexuaren arabera markatzen dituztenak. | Generoari dagozkion bestelako baloreak (positiboak) bultzatzen dituztenak. |
| Egungo genero zatiketa birproduzitzen dutenak. | Parekidetasunean oinarritutako eredu berri bat bultzatzen dutenak. |

**1.Taula:** Jolas eta jostailuen sexuarekiko lotura.

[3] *Ikastetxeko espazioen azterketa genero ikuspegitik*. Prest Gara, 2019/2020.

Bestalde, Sandra Molinesek, bere tesian azaltzen du patioen diseinuak eta kirol konkretu batzuen prebalentziak bestelako ariketa hezitzaileen garapena bertan behera utzi ditzaketela (Giménez, 2018a). Joko eta jolasak oso bideratuak egoten dira betiko jolasetara (futbola, saskibaloia, pilota, txirrista…), baina haur kopuru handi bat ez da horietan ibiltzen beraien interes eta nahietatik urrun daudelako (Antolín et al., 2017). Hierarkikoki prestigio handiagoa daukan jarduerak, futbolak, eragiten du beti mutiko nagusi berdinek jolastokiaren kontrola eta domeinua izatea eta egoera horrek eragiten du espazio osoaren %70-a kirola egitera bideratua egotea eta horretan bakarrik ikasleria osoaren %30 aritzen da (Giménez, 2018a). Eremu publiko batean, hau da, toki komunitario batean, espazioaren zatirik handiena jarduera bakar baterako erabiltzen denean, mezu argia igortzen da: jarduera horrek zer nolako garrantzia eta gailentasuna duen gizarte horretan (Auzmendi et al., 2018).

## 2.4. GENEROAREN ERAGINA ESPAZIOEN ERABILERAN ETA ANTOLAKETAN

Larramendik (2016) adierazten duenez, jaiotzetik jasotzen dugun genero hezkuntzak berebiziko eragina dauka. Erlazionatzeko, mugitzeko eta adierazteko modu desberdinak garatzen ditugu emakume edota gizon gisa hezten gaituztenean eta horrek eragin zuzena dauka espazioaren okupazioan ere. Mutilei akzio ekintzak sustatu izan zaizkie eta espazio handiagoa okupatzera bultzatuak izaten dira. Neskei, aldiz, polit, lasai eta maitagarri izatea eskatzen zaie, besteen beharren zain egotea baloratuz (Fresnedo, Telleria eta Albeniz, 2016; Gallastegui, 2018). Orokorrean, zaintza eta edertasunarekin lotutako jarduerak esleitu izan zaizkie, jarduera fisiko gutxi eskatzen dutenak. Modu horretan espazioa mugatzen zaie eta espazioan egotera baina ez kontrolatzera irakasten zaie (Larramendi, 2016)

Sexismoa gure kulturan sustraituta dagoenez, ikastetxean bertan ere presente dago, baina ez ikasleen jokabideetan soilik, ikastetxeetako jolastokietan ere antzeman daiteke, jolastokiaren diseinuan, alegia (Subirats eta Tomé, 2007).

Larramendik (2016) eta Cantó eta Ruizek (2005) azaltzen dute nola jolastoki gehienen diseinuari erreparatuz gero, futbol eta saskibaloi zelaiek, espazio osoaren azalera handiena hartzen duten eta, orokorrean, espazioaren erdigunea hartzen duten, ia esklusiboki. Halako neurriko espazioaren beharra duten ekintza horiek, tradizionalki, mutilek praktikatu ohi dituzte eta, beraz, suposatzen du azaleraren okupaziorik handiena mutilek hartzea. Bitartean, neskek eremu askoz txikiagoa okupatzen dute eta espazioaren izkinatan kokatu ohi dira (ikusi 1. irudia).



**1. Irudia:** Ikasleen jokamolde estereotipatua. (Larramendi,2016).

Hau ikusita ondorioztatzen dute metro koadroko alde handia dagoela mutilen dentsitatearen eta nesken dentsitatearen artean. Gainera, genero rolak erraz erreproduzitzen dira espazioan futbolaren bidez, hartzen duen espazioagatik eta darabilen indarrarengatik. Kirolaren eta hain zuzen ere futbolaren inbasioak hainbat ondorio ekartzen ditu, portaera ez hezitzaileak diren horien artean: portaera oldarkorrak, lehiakortasun handia, gaitasun fisiko hobea daukaten ikasleen gorespena, kooperazio gabezia, estrategia gutxi eta indibidualismo gehiegi, sormenik ez eta lagunarekiko balioespen eskasa, estrategia eta taktiken garapen eskasa, gehiegizko sexismoa… (Mazón eta García, 2005). Diseinu horrekin jolasari garrantzia kentzen zaio, kirola gainetik kokatuz eta modu horretan garapen fisikoa, psikologikoaren gainetik geratzen da (García, 2016). Horregatik, jolastokia horren arabera banatzeak bazterketa eragin dezake, neskak ez ezik futbola gogoko ez duten mutilak ere baztertuz (Epstein, Kehily, Mac an Ghaill eta Redman, 2001).

Hori horrela izanik, sexismoaren kausa anitzak agerian geratzen dira jolastokietako espazioetan eta denboran. Bonalek (2014) dioenez, jolastokietan garatzen diren jokoetan genero desberdintasuna gailentzen da, ez bertako baliabideek ez eta espazioaren antolaketak ere ez dutelako neska eta mutilen aukera berdintasuna bultzatzen. Bai mutil eta bai neskek garatzen dituzten jokoak genero aldetik guztiz estereotipatuta daude eta hierarkia sortzen da haien artean, hau da, futbolak estatus handiagoa du, adibidez, soka saltoak baino, eta horrek emakume eta gizonen arteko sailkapen hierarkikoa bultzatzen du.

“Gunearen erabilpena edo banaketa generoaren araberako zeregin eta erantzukizunen menpe dago. Espazioak ez dira neutroak eta diskriminazio egoerak sor ditzakete guneak pertsona batzuei edo besteei egokitzerakoan, hauei horren erabilpena eragotziz” (Bizkaiko Urtxintxa eskola, d.g. a., 15.or).

Orokorrean mutilek aukeratzen dituzten jolasak inbaditzaileak izaten dira bai inguruan dituzten pertsonekiko bai ingurunearekiko. Neskek txoko eta espazio periferikoak okupatu ohi dituzte, eta gehiago aldatutzen dituzte bai tokiak eurak bai euren aktibitateak ere. Haien jolasak, neurri handi batean, jarduera estatikoak izaten dira, ez inbaditzaileak, hala nola: jolas sinbolikoa, solasaldiak edo jesarrita egotea eskatzen duten jarduerak (Saldaña, 2018).

Eusko Jaurlaritzako hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzio planak (2013) ere aintzat hartzen ditu ikastetxeetako kanpo espazioak eta azpimarratzen du jolastokietan dagoen banaketa sexista dela. Mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskak bazterretan, batez ere, jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik. Gainera, kirol eremuei eta, nagusiki, futbolari eskaintzen zaion espazioaren eta beste jarduera batzuk egiteko erabiltzen den espazioaren arteko desoreka nabarmena da, naturguneena adibidez.

Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak eta Hezikert ikerketa Taldeak (EHU/UPV) 2014an aurkezturiko Hezkidetzaren egoerari buruzko azterketa diagnostikoa Gasteizko ikastetxeetan

(0-18 urte) atal berezia eskaini zioten espazioaren erabilerari “…oraindik patioa mutilena da, baloia eta porteriak nagusitzen dira espazioaren kudeaketan eta neskak hitz egiten jarduten dira patioaren inguruetan. Ikasleak honekin bat datoz: patioa “mutilenak diren kirolak” jokatzeko diseinatuta dago, non, futbol eta saskibaloi zelaiak okupatzen dituztenak patioaren jabeak dira, erdigunean baitaude, baina honetan ere adinak zerikusia du, mutil nagusienak izanik lekua hartzen dutenak. Hala eta guztiz ere, neskek ez dute adierazten espazio gehiagoren beharra; izan ere, ondo barneratuta daukate beraientzako esparruak beste batzuk direla.” (laburpenaren 22-23 orr.)[4]

Espazioak, gizartearen baloreen irudikapen fisikoa dira. Hortaz, patioak balore horiek planifikatu, eraiki, kudeatu eta bizi ditu. Modu horretan argi gelditzen da, inguru sozio- espazial horrek botere eta bazterketa harremanak erreproduzitzen dituela. Hau da, gizonezkoek daukaten lurralde kontrolak, gizonezkoen gailentzea eta emakumezkoen gutxiespena definitzen duten dikotomia espaziala babestu egiten du (Saldaña, 2018).

Horregatik, azterketa hezkidetzailea egin beharrean aurkitzen gara. Espazio eta denboraren banaketa (nola, zertarako, norentzat), erabilera (nola, nortzuk, zerekin), jarduerak (zeintzuk, zer lortzen da…) edota harremanak (noren artean, zertan oinarrituta) aztertu behar dira.

Patioen konfigurazio egoki batek genero berdintasuna ezezik, aniztasun funtzional, psikiko eta sentsorial desberdinen presentzia txertatu eta adin zein jatorri ezberdinetako haurren erlazio orekatuagoa ahalbidetuko du, orokorrean elkarbizitza. Hala ere, egitura hau eraginkorra izateko, hezkuntza komunitateko eragile guztiek (zuzendaritza, irakasle, ikasle, guraso eta auzokideak) parte hartu behar dute jolastokiaren inguruko gogoeta eta sentsibilizazio prozesuko fase guztietan.

[4] Espazioaren erabilera jolastokian, 1.eranskina.

# 3. JOLASGUNEEN EGUNGO ERREALITATEA

Ikasle, irakasle nahiz gurasoen artean, badago patioen erabileraren inguruko kezka; "patioek, benetan, haurrek dituzten premiei erantzuten ote diete? Zein balio gailentzen dira testuinguru horretan? Zer-nolako jolasak, kirolak eta ikaskuntzak indartzen dira? Zer-nolako rolak erreproduzitzen dituzte horietan ikasleek? Zer-nolako harremanak izaten dituzte? Adin guztietarako baliagarriak eta egokiak ote dira?…" (Auzmendi et al., 2018) bezalako galderak agertzen direlako.

Jarraian, egunerokotasunean patioak baldintzatzen dituzten eta oso onartuak ditugun alderdi ezberdinak azalduko ditut.

## 3.1. ESPAZIOAREN DISEINUA ETA ERABILERA

Jolastokia mugatua dago eta nagusiki hezitzaileek kontrol egokia izan dezaten diseinatua egoten da; ez die ikasleei esperimentatzeko eta ikertzeko aukera anitzak ematen, ezta jolastu bitartean ikaskuntza bat eraikitzeko. Estandarizatutako eredua errepikatzen da han eta hemengo patioetan, kontuan izan gabe zein testuingurutan dagoen eskola (Auzmendi et al., 2018). Espazioaren diseinuaren atzean beti dago erabileraren ikusmolde bat eta eskola-patioen kasuan nabarmena da zer aktibitate gailentzen diren (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016).

Maria Subirats soziologo eta hezkidetzan adituaren aburuz patioak kirol zelai bilakatu dira eta tamalgarria da hezitzaile gehienek errealitate horretaz ez konturatzea (Giménez, 2018a). Baina errealitatea da jolastokien testuingurua gehienbat kirol espazioez osatua egoten dela (García, 2016; Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016) tradizionalki pilotazko jokoekin kolonizatua (Giménez, 2018b). Futbola, jaun eta jabe da ikastetxeen patioan, hau da jarduera nagusia ia heziketa-zentro guztietan (Auzmendi et al., 2018; Mazón eta García, 2005; Soto, 2017).

Gainera futbol zelaia ez da edozeinentzako lekua izaten; nagusienak eta indartsuenak gailendu ohi dira (Auzmendi et al., 2018) eta idatziak ez dauden arauak sortu egiten dituzte: baloia duenak agintzen du, lodia atezaina izango da… Ondorioz, patioa gatazka batean bilakatu egiten da. Modu horretan baloia diskriminazio elementu batean bilakatzen da futbola gustuko duten eta gustuko ez dutenen artean eta gustatzen zaienen artean jokalari on eta txarren artean baita ere (Giménez, 2018b). Fullanak 2017.ko apirilaren 1ean "Edusiona't amb els espais educatius" deituriko jardunaldi informatiboan esan zuen moduan: "Patioaren konfigurazioak, publiko zehatz bat zehazten du" (Giménez, 2018b). Futbolaren logikatik kanpo dauden jolas eta jokoak, normalki, bazterrean geratzen dira, bigarren mailan, ikusgarritasunik gabe… eta horietan dabiltzan haurrak beste horrenbeste.

## 3.2. SEXISMOA

Jolastokia da, ikastetxeko esparruaren barruan, desberdintasun gehien antzematen den lekua, azken hamarkadetan egin diren ikerkuntzek patroi sexistak deskribatzen baitituzte eskolaren baitako sozializazioan (Saldaña, 2018).

Jolastokian umeen jokamoldea aztertzen badugu, gizartean errotuta ditugun genero-rolak errepikatzen dituela konturatuko gara (Larramendi, 2016). Marina Subirats eta Amparo Tomé soziologo feministek patioa aztertu ondoren, gure gizartearen metafora bat aurkitu zuten, hau da emakumezkoak eta gizonezkoak munduan egoteko daukaten moduen paradigma (Gallastegui, 2018). Patioen antolaketa sexista izaten jarraitzen du (Fernández eta Eizaguirre, 2014) eta espazioaren erabilpena analizatuz gero jokoen hierarkiak, ikasleen jolasek edo antolaketa espazial faltak eragiten dute (Fernández eta Eizaguirre, 2014) mutilak patio erdian jartzea, espazio zabal eta zentralenak hartuz baloiekin (gehienetan futbolean) jolasteko, eta bitartean neskak esparru seguruenak hartzen dituzte, periferian eta iskinetan baztertuak egoten dira bigarren mailako plano batean geratuz (Auzmendi et al., 2018; Fernández eta Eizaguirre, 2014; Gallastegui, 2018; Giménez, 2018b; Larramendi, 2016; Molines in Mas, 2019; Saldaña, 2018; Serra, 2014; Torres, 2019).

Nesken joko eta jolasak zailtasun handiak dituzte patioetan espazioa hartzeko, eta eremu bat lortzen saiatuz gero, irainduak edo baloiarekin kolpatuak izateko arriskua daukate. Neskak ez dira partidua galduta daukaten bakarrak, adin txikikoek edo eta kirol hori gustuko ez duten edo horretan jolasten onak ez diren mutilak eta behar bereziak dituzten ikasleak ere baztertuak geratu egiten dira (Gallastegui, 2018). 2019an Radio Vitorian San Prudentzio ikastetxeko Igor García hezitzaileari egindako elkarrizketa batean esan zuen moduan, egun patioen %75 - %80 futbol- zentrikoak dira. Ikasle batzuk nahiz eta futbola gustuko ez izan horretan aritzen dira, estatusagatik gehienetan, besteek ze pentsatuko dutenaren beldur, hau da baldintzatuak. Lehen Hezkuntzako etapan lagunak izateari garrantzia ematen hasten zaionez ikasle asko kirol horretan aritzen dira laguntasun zirkulu horretan sartzeko. Bestalde badaude neska batzuk jolastu nahi eta ausartzen ez direnak edo eta jolasten uzten ez dietenak. Azterketa egin ostean argi ikusten da patioan “lurralde jokabidea” erreproduzitu egiten dela. Mutilek beti espazio berdinak okupatzen dituzte jarduera mota berak egiteko helburuarekin. Zonalde bat jarduera jakin batekin lotzen denean, beste jolas batzuen garapena eragozten edo mugatzen duen lurralde-kontrola ezartzen da (Saldaña, 2018). Ekintza maskulinoek, indar sinboliko handiena duten espazioak betetzen dituzte, (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016) okupatuak gelditzen diren espazio horiek patioaren gune nagusiak izaten direlako. Hortaz, mutilek okupatzen duten espazioaren proportzioa neskek okupatzen duten baino askoz handiagoa da. Gainera, aukeratzen dituzten joko motak jarduera inbaditzaileak dira, bestei beraien jolasaldia zapuzten eta mugatu egiten dielako (Saldaña, 2018).

Honekin jarraituz Molinsek adierazten duen bezala (2012), jolastokian sexu desberdintasunagatik ikasleek daukaten eskaintzan desberdintasunak daudela agerian geratzen da, alde batetik, ez direlako egoki eta zuzen banatzen neskentzako eta mutilentzako espazioak ezta bitartekoak ere.

## 3.3. MONOTONIA ETA PASIBOTASUNA

Kirol hegemoniaren ondorioz, jolas tradizionalak bigarren mailan geratzen dira eta ikasle askok patioaren dinamikan inplikazioa galdu dute. Jolastokiak parte hartzeko eta ikasteko aukera gutxi eskaintzen dituenez, neska eta mutil asko baztertuak sentitzen dira jolas orduan, hori gutxi ez eta batzuetan ikasleak beraien lagunengandik arbuiatuak izaten dira (MEC, 2007 in Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Honek ikasle hauen aktibitate maila nabarmen jaitsi du.

Honekin lotuta, azkeneko urteetan osasun arazoak areagotu dira sedentarismoa eta ohitura osasuntsu faltagatik, batez ere umeetan. Sedentarismoaren fenomenoa poliki -poliki goraka doa eta osasun publikorako arazo larria bilakatu da, inaktibitate luzea gaixotasun ezberdinen arrisku faktore garrantzitsuenetako bat delako (Serra, 2014). Kasu honetan, sedentarismoa neskengan bikoitza da, nesken %16,3 mutilen %8.3-ren aldean (García, 2016) Espainia munduko herrialdeetatik haur gainpisu eta obesitate tasa altuenetarikoa daukana da (Casas et al. 2016 in García, 2016) hamar umetik, hiruk gainpisua bai daukate. OMS-ek dio arazo horien prebentzioa haurtzaroan hasi behar dela, oinarrizko ohitura osasuntsuak sustatuz (WHO, 1998). Hori dela eta, eskolak paper garrantzitsua hartzen du ikasleek bertan denbora asko igarotzen dutelako eta denbora ez-kurrikularra, hau da patioan igarotzen dena, aukera paregabea da jarduera fisikoa aurrera eramateko (García, 2016). OMS-ek dio gomendagarria dela 5 eta 17 urte bitarteko haurrek egunean ordu bateko intentsitate ertain edo altuko jarduera fisikoa egitea eta haur askok ez dituzte minimo horiek betetzen (OMS, 2010; WHO 2010).

# 4. JOLASGUNEAK BIZITZEKO MODU BERRIAK

Aurrez aipatu bezala, jolastoki edo patioak eraldatu aurretik garrantzitsua da aldagai esanguratsuenak identifikatzea: ze espazio mota dauden, materialak, espazioen erabilera, jolas motak… etab. Baina horretaz gain, jolasgune horiek gozatuko dituztenen hitza entzutea ere garrantzitsua da. Haurrak beraiek, espazioaren erabiltzaile izanik, ezinbestean beraien iritzia kontutan izan beharko genuke edota eraldaketa prozesua beraiekin batera egin. Horrela, jolasgunea bee egiteko aukerak handitzen baitira.

## 4.1. HAURREN PARTE-HARTZEAREN OINARRIAK

Herritarren parte-hartzeaz ari garenean, sarritan haurrak ez ditugu multzo horretan sartzen eta gaitasun hori helduoi bakarrik dagokigula uste dugu. Paternalismoaren eraginez, haurrak "zer nahi duten ez dakitela" pentsatu izan dugu. Aditu ezberdinek ideia hori aldatzeko garaia heldu dela azpimarratu izan dute. Esaterako Penny Lancasterrek "Haurrak ikusi bai, baina entzunak ez izatearen sinismena  gainditu behar dugu" (Lancaster, 2006)

Roger Harten arabera, parte hartzea gaitasun bat da "pertsona bat bizi den komunitatean edota bakoitzaren bizitzan eragina izan eta inguru sozialak onartzen dituen erabakiak adierazteko gaitasuna da" (Hart, 1993).

Eskubide eta gaitasuna ezezik, ardura hartze bat ere izan daiteke, eraldaketa sozialerako ekarpen bat egiten dena. Honek haurrari bere inguruan ematen diren prozesuetan  partaide izateko aukera eta adierazpen gaitasuna garatzeko aukera ematen die. Aipatutako aspektu hauek, beraien gaitasunak balioan jartzen, autoestimua hobetzen eta beraien ingurua hobeto ezagutzen laguntzen die (Muñoz, 2003).

Hurrengo taulan, "La plataforma de Organizaciones de la Infancia"k egindako ikerketa baten parte-hartzeak haurrengan izan ditzaken eraginak ikus daitezke.

| **Parte-hartze ezaren ondorio negatiboak** | **Parte-hartzearen ondorio positiboak** |
|---|---|
| Dependentzia: haurra edozein erabaki hartzeko helduaren menpe dago. | Autonomia. |
| Pasibotasuna, erosotasuna, konformismoa. | Sortzailetasuna. |
| Egoera kritikoen aurrean erantzun eza. | Esperimentazioa |
| Kritikotasun falta. | Hautaketa eta arrazoiketa gaitasuna |

| | |
|---|---|
| Ziurtasunik eza, autoestimu baxua. | Akatsetatik ikaspena. |
| Sortzailetasun eta imajinazio gutxi, aktibitateak bideratuak badira. | Nortasun indartsuagoa eta kritikotasuna indartzen da. |
| Askatasunari eta erabakiak hartzeari beldurra. | Harreman pertsonal eta ideien trukaketa areagotzen da. |
| Komunikazio gaitasun gutxi. | Entzuketa, negoziazio eta alternatiben aukeraketa gaitasuna garatzen da. |
| Haurtzaroa objektu ez parte-hartzaile bezala. | Haurtzaroa subjektu sozial aktibo bezala. |
| Adierazpen eskubideen ezjakintasuna. | Adierazpen eskubideen erabilera eta aldarrikapena |

**2.Taula:** Parte-hartzearen garrantzia haurrengan (Martinez eta Martinez, 2000).

Azken urteetan, parte-hartzea indartze aldera ahalegin ugari egin dira. Hala ere, Hart-ek uste du, helduok haurren parte-hartzearen manipulazioan erortzen garela eta diseinatzen ditugun prozesuetan haurren parte-hartzea ez dela benetan sustatzen. Nolabaiteko iruzurra eman daitekela esaten du eta horretarako, "Parte-hartzearen eskailera" aurkezten digu. Eskaileran gora egiten dugun heinean (lehenengo hiru mailetan "parte-hartze ezaz" ari da), parte hartzea errealagoa da:




**2. Irudia:** Haurren parte-hartze mailaren eskailera. (Hart, 1992).

*1. Manipulazioa.* Eskailerako mailarik baxuena da. Kasu hauetan, helduok haurrak erabiltzen ditugu gure ideia eta mezuak transmititzeko. Adibidez: manifestazio batean umeek pankarta bat eramaten dutenean.

*2. Apaingarria*. Maila honetako partaidetza moduak ere aurrekoaren nahiko antzekoak dira. Egoera hauetan, helduek haurrak erabiltzen dituzte, ekintzaren antolakuntzan parte hartzeko inolako aukerarik eman gabe. Adibidez: ingurumenari buruzko manifestazio batean, haurrek zerbait

kantatzen dutenean. Azken finean, horrelako egoeretan haurrak ideia bat indartzeko erabiltzen dira, haurrek hori ulertzen duten edo ez

*3. Eduki gabeko politika*. Mailaketa honetako ekintzetan, haurra fatxada bezala erabiltzen da, politikariek herritarrak zein prentsa hunkitzeko erabiltzen dute. Adibidez: helduak erakutsita, 'haurren parlamentuetan' oso ondo hitz egiten duten umeak agertzen direnean.

*4. Izendatuak baina informatuak.* Kasu hauetan, haurrak ez dira proiektuaren hasiera eragin dutenak, baina informatuta daude, eta proiektuaren parte sentitzera irits daitezke. Adibidez: herri batean obra bat egin behar da, eta herritarrei obran lan egiteko eskatzen zaienean.

*5. Kontsultatuak eta informatuak*. Proiektua helduek sortu eta gauzatu arren, haurrei iritzia eskatu ohi zaie. Horretaz gain, haurrei analisi eta eztabaidarako aukera ere eskaintzen zaie. Adibidez: ikastetxeko irteera bat prestatzerakoan, ikasleei ea joan nahi duten eta nora galdetzen dietenean.

*6. Hasierako erabakia helduak hartua baina, haurrekin partekatua.* Egoera honetako jardueretan, haurrek eta helduek adosten dituzte erabakiak, maila berean. Adibidez: aurreko adibidearen haritik, irteera horretan egingo diren ekintzak umeekin batera planifikatzen direnean.

*7. Hasierako erabakia eta zuzendaritza haurren esku.* Maila honetako partaidetza sistemetan, haurrek erabakitzen dute zer egin, eta helduen parte-hartzea nahiko mugatua da. Adibidez: auzo bateko umeek mahai-futboleko txapelketa bat antolatzen dutenean, helduei kontsultarik egin gabe.

8. Hasierako erabakia haurrek hartua baina, helduekin partekatua. Haurrek proiektua aurkezten, sortzen eta haren garabidean kudeaketa beren gain hartzen dutenean ematen den parte-hartze motari dagokio. Proiektuaren garapenean, aukera dute helduen partehartzea proposatzeko. Adibidez: aurreko adibidea, baina helduekin batera koordinatuta.

## 4.2. PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO BALIABIDEAK

Haurren parte-hartzeaz ari garenean, haurrak, onuradun pasibo izatetik partaide aktibo izatera pasatzen dira (Agirre, 2015). Gainera parte-hartzearen ekintza boluntarioa izan behar da. Txatxilipurdi Elkarteak "Herri Hezitzailea" proiektuaren baitan publikatutako "Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen" liburuxkan horrelako prozesu batek bete beharreko baldintzak aipatzen ditu, beste batzuen artean:

- Haurrek ekintza txikienetatik proiektu handienetara doazen prozesuetan parte hartu behar dute, diseinu, planifikazio, gauzatze eta ebaluazioan.

- Haurren parte-hartzeak beraien eremu hurbilenean gertatu behar du, abstrakzio hutsetatik kanpo eta eskuragarri dauden errealitateetatik abiatuta.

- Nabaritzen diren aldaketak ekarri behar ditu. Haurrek beraien parte-hartzeak balio duela, egunerokotasunean aldaketak eragiten dituela eta gainerako eragileen aitortza jasotzen dutela nabaritu behar dute.

- Parte-hartzearen bidez lortutako protagonismoak haurraren ahalduntzea dakar, bere jardunerako gaitasunez jabetu eta horien bidez nian, guan, beraiengan eta guztiongan konprometitutako autonomia garatzen joateko. (Agirre, 2015).

Baldintza horiek kontuan izanda, “Estrategias participativas para niños” (Corona eta Gáañ, 2009) gidan, parte-hartzeko hainbat teknika eta proposamenez gain, erabilgarriak diren hainbat metodologia agertzen dira:

<table>
<tr><th>TEKNIKAK</th><th>METODOLOGIA</th></tr>
<tr><td>Entzun eta solas egin</td><td>Imajinazioaren bidez mundu posibleak eraiki</td></tr>
<tr><td>Galdetu</td><td>Jolasak</td></tr>
<tr><td>Elkarrizketak haur taldeekin (Talde-prozesuak)</td><td>Artea</td></tr>
<tr><td>Eztabaida taldeak</td><td rowspan="2">Roger Hart-en proposamenak<br>Marrazki eta callage-ak<br>Mapa eta maketak<br>Elkarrizketa eta ikerketak<br>Ebaluazio ibilbide eta ibilaldiak<br>Paisaiaren azterketa</td></tr>
<tr><td>Kontsulta prozesuak</td></tr>
<tr><td>Asanbladak</td><td>Dramatizazioak, antzezlanak</td></tr>
<tr><td>Komisioak</td><td>Bozketak</td></tr>
</table>

**3.Taula:** Parte-hartzea bultzatzeko teknika eta metodologia ezberdinak. (Corona eta Gáañ, 2009).

# 5. JOLASGUNEEN EREDU HEZIGARRIAGOAK

Azken urteotan, patioen berrantolaketa eta diseinuaren inguruan saiakera ugari egin dira. Saiakera horien xedea, esparruak eremu hezitzaile eta parekideak bihurtzea izan da. Ondorengo puntuetan, aldaketa horien oinarrian dauden arrazoiak eta praktikan eredu berriak martxan jarri dituzten ikastetxeen esperientziak azalduko ditut.

## 5.1. HEZKUNTZAREN ERRONKAK

Patioen errealitatea sakonean aztertu ondoren, baieztatu daiteke, espazio hauek ez direla ikasteko gune bezala diseinatzen, baizik eta aisialdirako espazio modura bakarrik, ulertu gabe aisialdian ere ikasi egiten dela (Olano, 2007 in Larramendi, 2016). Ideia horrekin bat egiten dute Grugeon (Molins-Pueyo, 2012), Subirats (1994) eta García eta Rodríguezek (2009), jolastokiei erabilera handia ematen zaien arren, patioek daukaten hezkuntza izaera alperrik galdu eta bere potentzialari etekin urria ateratzen zaiola baieztatzen dutenean.

Honen harira, Marínek (2013) dio jolastokiak ez direla baliabide pedagogiko kontsideratzen eta horregatik, askotan ez dira atseginak izaten ezta kitzikagarriak ere.

Ezberdintasun hauek jolastokiaren konfigurazioan ere nabaritzen dira, honek jolas batzuei beste batzuei baino mesede handiagoa egiten dielako (Subirats eta Tomé, 2007). Hori horrela, jolastokien morfologia eraldatzea eta heziketarako duten ahalmena sustatzea konponbide bat izan daiteke (Marín, 2013).

Irakasleek bertan betetzen duten rolari dagokionez, hauek begirale lana egin ohi dute Bonalek adierazten duen bezala (2014). Autore berak dio, ikasleari, muga batzuen barruan, bere kasa mugitzeko eta jolasean aritzeko askatasuna ematen zaiola jolastokian eta ohartarazten du nola ikaskideekin erlazionatu ez ezik, irakasleen kontrol maila baxua eta arau esplizitu ezaren ondorioz, gatazkak ere sortzen direla, gatazka horien artean neskekiko mutilen nagusikeria gailentzen delarik. Jolasaren garapenean erreproduzitzen diren rol sexualei buruz, botere erlazioak eta genero desberdintasuna bultzatzen duten jarrerak gailentzen dira (Bonal, 2014).

Jolasetan aukera berdintasuna dagoenean neskek zein mutilek senti dezakete denentzako aukerak daudela, lagunduta daudela eta deskantsurako eta sozializaziorako beraien beharrak betetzen direla, haien arteko hartu-eman sarea ere zabalagoa baita (Rosete, 2013). Horrez gain, bere esanetan, era horretako jolasguneetan dagoen tolerantziak lagundu egiten die ikasleei segurtasuna garatzen eta jendartearen baitako hartu- emanetara egokitzen. Horren adibide bezala Rosetek aipatzen ditu garapen emozional optimoa lortu eta ahaldundu diren emakumezkoak (2013); bere esanetan, guztiz esanguratsuak suertatu ziren euren haurtzaroan izan zuten jolasen aberastasuna eta aniztasuna, eta nola haien jolasaldietan nesken eta mutilen jolasen arteko bereizketarik ez zen egon. Horrela, berdin

jolasten zuten panpinekin, etxetxoekin eta jatekoekin zein futbolean, pilotan eta kaniketan, jauzi egiten zuten zuhaitzetara eta torlojuak, erremintak eta, ikuspegi klasikoaren arabera, mutilentzako ziren objektuak erabiltzen zituzten.

Horrenbestez, baieztatu da jolastokia atseden gune, sozializaziorako berezko eremu eta erabilera handiko elementua dela eta horra bere garrantzia heziketaren bidelagun izateko. Jolastokia ikasteko beste espazio bat da, liburutegia, soinketa gela edota informatika gela diren bezala, eta, ikastetxeko baliabidea den heinean, berez duen indar hezitzailea baliatu beharra dago ikastetxeko oinarriekin bat egin dezan, ikastetxeko proiektua garatzeko beste bitarteko bat izan dadin.

Halaber, ikusi da nola generoaren arabera estandarizatutako jokamolde batzuk murriztaileak ez ezik gatazka sorburu ere badirela. Beraz, esan daiteke jolastokien antolamendua dela eta, haur guztiek ez dituztela aukera berak nahi duten jolasaren bitartez atsedena hartzeko, eta horrela, espazioaren gaur egungo banaketa oztopo bat izan daiteke aukera berdintasunerako. Ondorioz, gizarte justuagoa eta hezkidetzan oinarritutakoa nahi baldin badugu, beharrezkoa da eskoletatik espazioetan nesken presentzia eta ikusgarritasun fisiko eta sinbolikoa bermatzea. Helburua maskulinitatearekin hain lotuta ez dauden joko eta ekintzak sustatzea, futbolari esleitutako boterea gutxitzea eta motrizitate pertzentila igotzea da (Larramendi, 2016).

Espazioen eraldaketa kolektiboan funtsezkoa da “Arkitektura Hezitzailea” kontutan izatea, genero desberdintasunak nola artikulatzen diren ulertzeko eta horiekin bukatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko (Saldaña, 2018) baita motrizitate maila ikasleen artean handitu ahal izateko. Hortaz patioaren erabilera edo banaketa aldatzen duen edozein ekintza edo prozesu gizarte aldaketa ekarriko du (Saldaña, 2018)..

Hori dela eta, zenbait aipamen egin ondoren, alde batetik, hainbat eremutako berrantolaketa hezkidetzan oinarritu beharko litzatekeela eta, beste alde batetik, generoa murriztailea eta gatazken sorburua izan daitekeela ondorioztatu da.

Patioen eraldaketa Hezkidetza II. Planean txertatuta dagoen gaia da. Eremu hezitzailean lantzeko erronken artean hauek aipa daitezke:

- Espazioen eraldaketa sakona egitea hauek berdinkideak izan daitezen.
- Denboraren banaketa berdinkidea ziurtatzea. Aztertu zenbat denbora eskaintzen zaien ikasleei eta saiatu arreta modu berdinean ematen.
- Espazio eta denboraren gaiak mahai gainean jarri eta dauden ezberdintasunak ikusarazi, kontziente izan arte ez baitugu hausnartuko ezta aldaketarik egingo.
- Ikasleei harremanetarako eredu egokiak eskaintzea.

- Hirietan dauden kale, eskola, eraikinen izenei buruz hausnarketa eta aldaketarako proposamenak bideratzea.

## 5.2. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK

Azkenengo hamarkadan Euskal Herrian patioa berrantolatzeko edo dinamizatzeko saiakera ugari egin dira.[5] Zenbait eskola hasi dira patioaren erabilera arautzen, jolasak txandakatzen, espazioen banaketa erregulatuz eta futbolera jokatzeko egunak mugatuz. Arauak ezartzearekin batera ikasleei jolas berriak erakustea ezinbestekoa da, mistoak direnak (adina, sexua, arraza…) eta lehian oinarritu beharrean lankidetza bezalako balioak sustatzen dituztenak (Hernaniko Udala, 2003 in Larramendi, 2016).

Gipuzkoa aldean hainbat jolaslekutan proiektu pedagogiko berritzaileak martxan jarri dituzte (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Batzuk aipatzearren, Azpeitiako Karmelo Etxegarai, Hernaniko ikastetxeak, Oiartzuneko Elizalde, Orioko J.Zaragueta, Tolosako Laskorain eta Villabonako Fleming herri eskolan. Azken honetan, haurrei beraien beharrak asetzeko elementuak (elementu naturalak, rokodromoa, slackline, gurpilak, mini-frontoia… ) eskaini zaizkie, beraien emozioetan oinarritutako jolas parkea eginez, ikasleen garapen psikomotorra indartzeko nahiarekin. Diseinu honekin, orain haurrak protagonistak eta indibiduo aktiboak dira, honek ikasleen jarduera fisiko maila handitu du. Patioa ikertzeko, harremantzeko, euskaraz aritzeko, amesteko, esperientziak bizitzeko… espazio bilakatu dute, eta horretarako auzolanean aritzea beharrezkoa izan da (Fleming herri eskola, 2017). 2003-an, Elgoibarren herri eskolak, Kalamua Guraso Elkartearekin batera, Elgoberdin programaren barnean eskoletako espazioak nola erabiltzen diren aztertu eta genero-adierazlea erabakigarria dela ondorioztatu zuen. Jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik edo jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik, mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskak bazterretan. Hortaz “baloi gabeko eguna” ezartzea erabaki zuten (Vives, 2014b; Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017). Honekin lotuta, Donostiko Ibai ikastolan astero futbolera jolastu ezin diren hiru egun jarri dituzte. Hasieran ikasleek ez zuten futbola kendu nahi, baina denborarekin ondo egokitzen joan dira (Fernández eta Eizaguirre, 2014).

Bizkaian, Durangoko Kurutziaga, Lekeitioko eskola, Bilboko Zamakola eta García Rivero, Getxoko Geroa eta San Nikolas, Gueñeseko Osotu Lanbarri, Ondarroak Zaldupe eta Sestaoko Kueto aipatu daitezke beste batzuen artean. Zamakola eta Zaldupen baloi gabeko egunak proposatzen hasi ziren Elgoibar eta Ibai ikastolaren antzera. Horrez gain, Ermuako San Pelayo ikastetxean ere parte hartze prozesu bat jarri zuten martxan 2016an, jolastokia aukera anitzeko espazio erabilgarriago bilakatzeko helburuaz. Lehendabizi, proiektuak izango zituen helburuak finkatu zituzten, ondoren, espazioaren eta bere erabileraren analisi bat egin zuten, jarraian diseinu desberdinak egiten hasi ziren

[5] EAE eta inguruan aurrera eman diren praktika batzuk, 2.eranskina.

eta azkenik prototipo batzuk burutu zituzten. Proiektu hau DBH-4.mailakoekin egin zutenez, ikastetxe osoari honen berri eman zioten lana burututakoan eta azkenik zuzendaritzara eraman zuten (Ttipi studio, 2016).

Araban, Gasteizko San Prudentzio eta Abendañon, Duranan eta Urduñan ere bideratu dira jolasgune parekideen inguruko proiektuak. San Prudentzio ikastolako Igor García irakasleak dio ikasleak nahi duten jarduera egiteko askatasuna izan behar dutela patio garaian. Bere esanetan, futbola debekatzea ez da beharrezkoa, baina bai umeei beste aukera asko daudela erakustea. Egia da umeak oso bideratuak egoten direla txikitatik kirol, joko eta jarduera maioritarioak egitera. Ohitura horiei pisua murriztu aldera San Prudentzion, tutoretza orduetan tutoreek ikasleei hogeitahamar joko eta jolas desberdin proposatu zieten, horien artean klase bakoitzak hiru aukeratu zezan eta ikastetxe osoko ikasleen iritziarekin patioaren egituraketa eta dinamika aldatzeko. Aukeratutako jardueretan baldintza bakarra kirol maioritarioak ez izatea izan zen, ez futbola, ezta saskibaloia. Informazioa jasota, patioa txoko desberdinetan banatu eta irakasleen laguntzarekin horiek antolatu eta dinamizatu egin zituzten patio parekideagoa lortuz. Hasieran irakasleak dinamizatzaileak izanda, ikasleek patioa nola dagoen bereizia ikasiko dute, espazio bakoitzean dauden material, jolas eta arauak etorkizun ez oso urrun batean modu autonomo batean horiek beraien kabuz aurrera eramateko.

Duranako Ikasbidearen kasuan, botere-harremanak ematen zirela ikusirik 2.batxilergoko ikasleek harreman osasuntsuagoak izateko patio baten proiektua klaustrora eraman zuten. Orduan, Nondik Arkitektura Estudioaren proposamen bat jaso zuten, patioen eraldaketa jorratzeko proiektu bat planteatuz eta aurrera eraman zuten. Irakasleen eta ikasleen artean parte-hartze prozesua aurrera eramatea erabaki zuten. Behin patioaren diagnosia egin eta birmoldaketarako ideiak jaso ostean, eraldaketa prozesuari ekin ahal izateko (Auzmendi et al., 2018). Hezkuntza sailak parlamentuan hezkidetza plan berri bat aurkeztu zuen, patioaren egituraketa sexistarekin amaitzeko helburuarekin. Proiektua 2015- 2016 ikasturtean aurrera eraman zen, irakasleek formakuntza espezifikoa hartu zuten gaiaren inguruan, ikastetxe bakoitzean hezkidetzaren arduradun bat jarri zen eta esperientzia pilotuak egin ziren (Fernández eta Eizaguirre, 2014). Zoritxarrez, esperotako emaitzik ez dute lortu.

Bukatzeko esan behar da, patioen eraldaketa garatzea planteatzen duten ikastetxeek araudi eta dagokien Autonomi Erkidegoan indarrean diren protokoloak hartu behar dituztela aintzat.[6]

[6] Patioa eraldatzeko araudi, gida eta protokoloak, 3. eranskina.

# 6. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Ikastetxeak patio parekide eta hezitzailea lortzeko bidean zailtasunak zituenez, diagnostiko bat egin nuen. Horrela, abiapuntua zehaztu eta jardueren proposamen bat garatu nuen eremu nagusirako. Ondoren azalduko dudan prozesuaren oinarrian, haurren parte hartzea, jarduera eta jostailu ez sexisten erabilera, jardueren aniztasuna eta aukeraketa librea bultzatu dira.

## 6.1. TESTUINGURUA

Atal honen proposamena Ondarroako herrian aurrera eraman da. Zaldupe eskola publikoak HH eta LH rako hezkuntza eskaintzen du. Eskolari auzoak ematen dio izena, Artibai ibaiaren ekialdean eta kiroldegiko eraikinari bat eginda. Bi eraikin nagusi ditu; batetik eraikin zaharra, bertan LHko ikasgelak, zuzendaritza, jantokia eta patioa aurkitzen dira, eta bestetik eraikin berria, non HHko ikasgelak, psikomotrizitate gela, areto nagusia eta eskolako baratza dauden. Gainera kiroldegiko boulderra, tatamia, igerilekua eta frontoia ere erabiltzen dituzte duten gertutasunagatik.

Ikastetxeko ordutegiari dagokionez, goizean 9:00etan hasi eta 12:30etaraino irauten dute klaseek, arratsaldeetan berriz 14:30etatik 16:00etara. Egunean zehar zikloka banatutako bi jolasordu daude; 1.zikloko ikasleek 10:30etatik 11:00etara izaten dute eta 2. ziklokoek 11:00etatik 11:30etara. Azkenik, eskolaz kanpoko jardueren ordutegia bi zatitan banatzen da; eguerdian 12:30etatik 14:30etara eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara.

Ikastetxearen nortasunari dagokionez, ikasle guztiei euskal kultura ezagutu, hizkuntzaren erabilera normalizatu eta euskaraz bizitzea bermatzen dien eskola euskalduna da. Horrekin batera, eskolak, ikasle eleanitzak trebatzearen aldeko apustua egiten du. Bestalde, emaitza akademiko eta elkarbizitza hobe bat lortze aldera, talde elkarreragileetan lan egiten dute. Honetarako irakasleez gain, guraso edo ikasle ohien presentziak ikasleen motibazioa areagotzen du, irakasleen esanetan. Bizikasi ekimenaren bidez, eskola espazio segurua bilakatu nahi da, inolako jazarpen egoerarik onartuko ez duena. Horregatik sexu, arraza, sinesmen,… askatasuna bilatzea helburu duen eskola da. Azkenik, eskola osasunaren barnean, ingurumenaren zaintza, elikadura osasuntsua eta kontsumo arduratsuaren inguruko kontzientzia zabaldu nahi da.

Kanpo espazioari dagokionez, Zaldupek urteetan patioa berrantolatzeko ibilbide bat eraman du aurrera. 2003-2004ko ikasturtean, Emakunderen “Nahiko” programan sartu zen. 2011. ikasturtean, “Balones Fuera” liburuan oinarrituta eta ikasle-irakasleen akordioz; astearte eta ostiraletan futbolik gabeko jolas orduak ezarri zituzten. Horrekin nahikoa ez eta 2019ko udan, jolas tokiko ziburuen gune klasikoa berriztu eta eremu natural, ekologiko eta irisgarria bilakatu zuten. Guzti hau aurrera eramateko, hezkuntzako eragile guztien parte hartzea ezinbestekoa izan da, baita udalarena ere. Hala ere, oraindik emaitzekin ez daude oso pozik eta zerbait aldatzeko asmoz proposamen berri bat egin dut.

Azaroaren hasieran, nire lanaren gaia zehazten hasi nintzenean Zuzendaritzarekin bilera bat izan nuen. Bertan nire proposamena aurkeztu eta beraien ibilbidea ezagutu nuen. Zuzendaritza taldeak begi onez ikusi zuen eta klaustroan nire proposamenaren berri eman zuten.

Behin klaustroak onartuta, eskola kontseiluan aurkeztu zen eta hemen ere arazorik gabe onartu zen. Kontuan izan behar da, eskolak urteetan norabide honetako proiektu ezberdinetan parte hartu duela eta proposamena hilabete batean burutzeko saiakera bat dela. Testuinguru honek lanak erraztu dizkit, bestela beharrezkoa izango zen sentsibilizazio kanpaina bat aurrera eramatea, horrek suposatzen duen guztiarekin: denbora, irakasleen formakuntza gaiarekiko,... Eskolak aurrez eratuta zeukan talde dinamizatzaileak eta nik neuk egin dugu koordinazio lana: GHko mintegia, Hezkidetza batzordea eta Guraso batzordearekin.

Lan honetan proposatuko den eraldaketa erabileraren ingurukoa izango da, hau da, eremua aldatu ordez, bertan egiten diren jarduerak gidatu edo zainduko dira, hori bai, parte hartzea librea izango da. Patioa, diagnosia egiterakoan, lau sektoretan banatu dut:

- Sarrerako gunea.
- Natur eremua.
- Rokodromoa eta frontoia dauden eremua.
- Talde kiroletara bideratutako eremua edo eremu nagusia.

Nire proposamena oso zehatza izan da eta LH-ko 2.Zikloko ikasleen jolasordura mugatu da. Ziklo honetan (4., 5. eta 6. Mailak) 166 ikasle daude, horietako 77 neskak eta 89 mutilak dira.

Ikerketa ugarik baieztatu izan dituzten datu orokorrak baieztatu ditut hasierako behaketekin. Larramendiren (2016) ikasleen jokamolde estereotipatuen irudiarekin bat zetorren nire diagnostikoa, emakumezkoak inguruan eta jarduera lasaietan aritzen diren bitartean, gizonezkoak erdigunean eta jarduera inbasiboetan aritzen dira. Ondoren, Roseten (2013) baieztapena kontuan izanda, jardueren aniztasuna eta aberastasuna bilatu nahi izan dut. Horretarako, jarduera multzo batzuk zehaztu eta bakoitzean landu daitekezken jokamoldeen zerrenda bat osatu dut. Jarduera hauetan, sexuarekiko loturarik ez da ematen eta generoari loturiko rolak ez dira errepikatzen, Bonalek (2014) aldarrikatzen zuen bezala. Gainera, soilik eremu nagusian egingo diren jarduerak dinamizatzen jarri dut arreta. Eremu hau mutilek eta lehiakorrak diren jardueretan ibiltzeko, futbola, saskibaloia,.. erabiltzen dute gehien. Zuzendaritzatik esan didatenez, ikasgelara bueltatzen direnean bertan sortutako gatazkek jarraitu egiten dute sarritan eta honekin ere bukatu egin nahi da.

Nire helburua, eremu nagusian jarduera anitzak eskainiz ikasle guztiek libreki parte hartzea eta eremu horretan aniztasun handiagoa bilatzea izan da, bai partaide eta bai jarduerei dagokienean. Eremu hau patioaren erdigunea da eta bertan  aberastasun hori bilatzeko, ikasleei jardueren zerrenda batean aukeraketa egiteko esan zaie. Jarduera hauek, sexuaren gainetik jolastu ahal izateko aukera

ematen dutenak izan dira, hezkidetza bilatzeko asmoarekin. Harten (1992), haurren parte-hartze maila neurtzeko eskaileran 6.maila batean jarriko nuke eginikoa. Hau da, nagusi batek hasierako erabakiak hartu eta ondoren haurrekin erabakiak partekatu dira. Honela ikasleak ere proiektuaren aktore nagusi sentitu dira. Azkenik, erabilitako metodoei dagokionez bozketa izan da aipagarriena. Gasteizko San Prudentzion eginikoan oinarrituz, jardueren zerrenda batetik aukeraketa egitea eskatu zitzaien ikasleei.

## 6.2. PROZEDURA

Lan hau ikastetxean aurkeztu eta onarpena jaso ondoren, aurrera eramateko eman diren pausuak hauek izan dira:

*1. Pausua: behaketa*

Bi behaketa burutu dira, bat eskolako kanpo espazioaren azterketa egiteko eta bestea, haurrek espazioarekiko daukaten interakzioa diagnostikatzeko.

*2. Pausua: emaitzen analisia*

Behaketetako datuak jasota diagnostikoa egin zen. Joera orokorra mantentzen zela ikusita, mutilak jarduera inbasiboetan eremu nagusian eta emakumezkoak inguruan eta jarduera lasaietan, jolasorduko antolaketa aldatzea erabaki genuen. Behaketaren emaitzak klaustroan erakutsi eta talde dinamizatzaileak gune nagusian egin daitezkeen aldaketak proposatuko zituen. Jarduera eskaintza anitza eta guztien gustura egindakoa programatzea zen helburua eta hori lortzeko talde dinamizatzaileak jarduera multzo batzuk proposatu zituen. Jarduera multzo hauen proposamena guraso batzordearen eta klaustroaren aurrean arrazoitu zen.

Multzoak zehaztu ondoren, multzo bakoitzerako jarduera zehatzen zerrenda osatu zuen talde dinamizatzaileak. Zerrenda hori, Gorputz Hezkuntzako saioetan banatu zitzaien ikasleei eta bakoitzetik 3 jarduera aukeratzea eskatu zitzaien.

*3. Pausua: jardueren fitxak*

Ondoren, Gorputz Hezkuntzako irakasleek zerrendak jaso eta gehien errepikatu ziren multzo bakoitzeko lau jarduerak landu ziren tutoretzetan. Jarduera bakoitzaren araudiak adostu, aldaerak zehaztu eta zalantzak argitu ziren.

*4. Pausua: egutegia prestatzea*

Talde dinamizatzaileak klaustroren oniritziz ikasturteko egutegian txertatu zuen eskuhartze proposamena. Patioko egutegi hauek, ikasgela bakoitzean eta jolasguneko eremu nagusian ikusgai jarri genituen.

*5. Pausua: jolasorduen behaketak*

Zaintzako irakasleek, prozesuaren 2.fasean eginiko behaketen fitxak berriro bete behar zituzten. Dinamizatzen egongo zirenak, beti GH mintegikoak izango ziren, baina behaketa zaintzako irakasleek egin behar zuten.

*6. Pausua: ondorioak eta hobetu beharrekoak*

2. eta 5. faseko emaitzak konparatu, ikasleen asebetetze mailaren inguruko galdetegia pasatu, emaitzen hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatu behar ziren. Helburuak zein neurritan bete diren, aukeratutako jarduerak egokiak diren, datuak jasotzeko arazorik egon den,...

## 6.3. TRESNA

Ikastetxearen kanpo espazioa eta ikasleek espazioarekiko daukaten interakzioa aztertzeko, tresna ezberdinak martxan jartzea ezinbestekoa izan da behaketa zehatza eta sistematikoa bermatzeko. Jarraian, "ad hoc" konfiguratu diren tresnak aurkezten dira.

### 6.3.1. Ikastetxearen kanpo espazioa aztertzeko galdetegia

Aniztasuna, malgutasuna, harremanak, erosotasuna eta ordezkaritza izan dira proposatutako irizpideak. Horrekin aukeratutako espazioaren errealitatea ahalik zehatzen islatzea izan da helburua, gure jolasgunearen argazki orokor bat ateratzeko asmoz. Galdera guztiak erantzutea ez zen derrigorrezkoa, soilik talde dinamizatzailearen ustez azterketa beharretara hobekien egokitzen zirenak. Ariketa honetan zintzotasuna eta kritikotasuna oso garrantzitsuak izan dira.

| |
|---|
| ***ANIZTASUNA*** |
| *Espazioaren eta osatzen duten elementuen aniztasuna. Aniztasunak patioaren erabilera eta banaketa hezkidetzailea sustatzen du.* |
| **Existitzen dira espazio edo/eta elementuak…** |
| …zona ezberdinak banatzeko? |
| …ekipo jolasean aritzeko? |
| …deskantsuan eta jolas lasaietan/sasi-aktiboetan aritzeko? |
| …jolas imajinatibo, sinboliko edota indibidualetarako? |
| …lurzoru, ehundura eta kolore ezberdinekin? |
| …eskolako haurren adin eta gaitasun fisiko ezberdinetarako egokituak? |
| ***MALGUTASUNA*** |
| *Espazio edo elementu baten gaitasuna egoera edota erabilera ezberdinetara egokitzeko. Malgutasunak estereotipo eta genero banaketa gainditzeko aktibitateen garapena bermatzen du.* |
| **Badira espazio edo/eta elementuak baldintzatzen dutena…** |
| …erabilera polibalenterik? |
| …adin edota gaitasun fisiko ezberdinetako haurren jolas simultaneoak? |

…patioan mugitu edota posizio ezberdinak okupatzeko?
…haurrek mugitu edota moldatzeko?
…talde handi bat biltzeko (adibidez; ospakizun bat)?

***HARREMANAK***

*Elementu edota espazio bat edo gehiagoren artean sortzen den harremana (distantziak, bisibilidadea, erdi bideko espazioak,...). Harreman hau egokia baldin bada, hierarkien edota pribilegioak ezartzea ekiditen du, baita aktibitate batzuen inbasioa besteekiko ere.*

**Gertutasuna:**

**Ibilbidearen denbora txikiagoa da…**

…ikasgela urrunenetik patiora 3 minutu?
…oinarrizko erabilera zerbitzuetara (zakarrontzia, ura eta komuna) 1 min baino gutxiago patiotik?
…eskola sarreratik patioko leku urrunenera 1 min baino gutxiago?

**Irisgarritasuna:**

**Badago oztoporik gabeko eta pertsona guztien mugikortasuna bermatzen duen ibilbiderik…**

…espazio publikotik eskola eremua bitarte?
…patiotik eskola eremura?
…ikasgela guztietara?
…patioko eremu ezberdinen artean?

**Ikusgarritasuna:**

**Badago konexio bisualik…**

…patioko eremu ezberdinen artean?
…patio eta kanpoko eremuaren artean?
…patioa eta eskola barnekaldearekin?

***EROSOTASUNA***

*Espazioa erabiltzen duten pertsonen ongizatean eragina duten elementu edo espazioen ezaugarriak. Erosotasunak pertsonen ongizate fisiko eta psikologikoa areagotzen du, zaintzaren baloreen garrantzia indartuz.*

**Klimara egokitzapena:**

**Badira:**

…kanpo eremu estaliak eguzki edota euritik babesteko?
…landaredia, udaran itzala eta neguan babesa eskaintzen duena?

**Segurtasun sentsazioa:**

**Badira:**

…eguneko ordu guztietan argitasun nahikoa?
…pilota/baloi guneetatik babesa?
…segurtasun eza sorrarazi dezaketen eremu edota elementuentzako neurriak (izkinak, horma opakoak, gune ilunak)?
..mantenu eta garbitasun nahikoak?

**Aktibitate egokiak:**

…badira eremu isilak non hitzegin, irakurri edota aktibitate lasaiak egin?

| |
|---|
| …familientzako itxaron eremuak elkartruke soziala bermatzeko |
| ***ORDEZKARITZA*** |
| *Hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien errekonozimendu, ikusgarritasun erreal eta sinbolikoa zein erabakiak hartzerakoan parekidetasunean oinarritutako parte hartzea.* |
| **Parekidetasunean oinarritua dago…** |
| …jolasgune guztiko elementuen distribuzioa? |
| …jolasguneko zona eta espazio ezberdinen garrantzia? |
| …jolasgunean presentzia duten irakasle gizon eta emakumeena? |
| …genero ezberdinen ordezkaritza hormetako mural edota bestelako elementuetan? |
| …espazioaren zaintzaren eta apaintzearen parte hartzean haurren artean? |
| …espazioaren zaintzaren eta apaintzearen parte hartzean irakasleen artean? |

**4.Taula:** Eskolako kanpo espazioa aztertzeko galdetegia. (Prest Gara ikastaroa, 2019).

### 6.3.2. Espazioaren sektorizazioa eta segregazioa aztertzeko behaketa

Sektore ezberdinetan ematen diren aktibitateen eta espazioa beraren maskulinizazio eta feminizazioari buruzko informazioa batzea izango da behaketa honen helburua. Horrela, jolasguneko sektore ezberdinetan dominazio maskulino eta femeninoa ematen den eta hau, garatzen diren aktibitate motarekin erlazionatua dagoen ikusgai egiteko balioko digu.

Behaketa jolas-orduan egingo dugu, bi momentutan. Bat jolas-orduaren hasieran eta bestea jolas-orduaren amaieran. Gomendagarria da haurrak jolasgunera irten eta minutu batzuk pasata egitea behaketa. Jolasguneak dituen sektore besteko taula bete beharko ditugu eta behaketa ezberdinak egingo ditugu bizpahiru egunez. Ondoren gure patioaren planoa egingo dugu, sektore ezberdinak argi bereiziz. Bukatzeko behaketetan jasotako datuak planoan irudikatuko ditugu. Horretarako, neskak kolore batekin irudikatuko ditugu eta mutilak, beste kolore batekin. Bi behaketetan, aurretik definitutako sektore ezberdinetan dauden haur kopurua, ematen ari den aktibitatea eta nesken edo mutilen dominazioa ematen ote den jasoko dugu hurrengo taulan:

| Sektorea | Haur kopurua | | | Dominantzia | | | Jolas mota | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Jolas-ordu hasiera | <15 | 15-30 | >30 | Neskak | Mutilak | Mistoa | Intentsitate altuko motrizitatea | Intentsitate baxuko motrizitatea | Sinbolikoa |
| Jolas-ordu amaiera | <15 | 15-30 | >30 | Neskak | Mutilak | Mistoa | Intentsitate altuko motrizitatea | Intentsitate baxuko motrizitatea | Sinbolikoa |

**5.Taula:** Jolasorduan, ikasleen sektorekako behaketa egiteko fitxa. (Prest Gara ikastaroa, 2019).

Azkenik, gure proposamenean haurren parte hartzeari lekua egin eta egutegia zehazteko, jarduera multzoen barnean proposatutako jardueren fitxa bat burutu zen. Fitxa horretan ikasleek multzo bakoitzetik 3 jarduera aukeratu behar zituzten.

### 6.3.3. Jarduerak aukeratzeko fitxa

Gorputz Hezkuntzako saioetan irakasleek proposatu eta ikasleekin adostu zen taldez talde zerrenda zabal bat. Ikasleek beraien gustuen arabera sortutako zerrenda horren emaitza honako hau izan zen:

| ZALDUPE ESKOLAKO JOLASORDUETAN AURRERA ERAMATEKO JARDUERAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| JOKU TRADIZIONALAK | ADIERAZPEN JARDUERAK | TALDE JOLASAK | JOLAS ALTERNATIBOAK | KOOPERAZIO JARDUERAK |
| ☐ Tabak<br>☐ Tronpa (xiba)<br>☐ Arrautza koilaran<br>☐ Txapak<br>☐ Saku lasterketa<br>☐ Goma jolasak<br>☐ Soka saltoa<br>☐ Kanikak<br>☐ Txintxirrika (rayuela)<br>☐ Karabin karaban | ☐ Mimika<br>☐ Aerobika<br>☐ Munduko dantzak<br>☐ Euskal dantzak<br>☐ Body Konbat<br>☐ Buru haundiak<br>☐ Zango luzeak<br>☐ Yoga<br>☐ Kapoeira | ☐ Baloi dorrea<br>☐ Zelai errea<br>☐ Artzikirola<br>☐ Altxorra lapurtzen<br>☐ Erregea eta zaldunak<br>☐ Marro<br>☐ Kolp bola<br>☐ Azeria, sugea eta oiloa | ☐ Fresbea<br>☐ Malabareak<br>☐ Plater txinatarra<br>☐ Indiaka<br>☐ Patinak<br>☐ Kin ball<br>☐ Diaboloa<br>☐ Kometak | ☐ Hiruko marra<br>☐ Harria, papera, guraizea<br>☐ Baloia garraiatzea<br>☐ Karretilla luzea<br>☐ Erronkak<br>☐ Tren itsua<br>☐ Argazki jendetsua<br>☐ Talde oreka |

**6.Taula:** Zaldupe ikastetxeko jarduerak aukeratzeko fitxa. (Talde dinamizatzailea, 2020).

Fitxa honen emaitzetan oinarritu zen, ondoren osatu zen proposamen didaktikoa. Multzo bakoitzeko jarduerarik bozkatuenak aukeratu ziren patioan aurrera eramateko. Adierazpen jardueretan, buru haundi eta zango luzeen jarduerak batera egitea adostu zen. Emaitzak parekoak izateaz gain oso bateragarriak zirelako, bai material zein espazio aldetik. Kooperazio jarduerei dagokienez, 3 jarduera bozkatuenak aukeratu ziren, 4. saioa Karenka elkarteak, jarduera egokituak egiteko adostu zelako.

## 6.4. DIAGNOSTIKOA

Behaketak egin ondoren, emaitzen analisia egitera pasa ginen. Jarraian behaketa bakoitzean lortutako emaitzekin ateratako argazkiak ikusten dira.

### 6.4.1.Ikastetxearen kanpo espazioaren behaketa

Talde dinamizatzaileak, galdeketan proposatutako irizpideen arabera patioaren argazki orokor bat lortu zuen, bere alde on eta txarrak edo aukerak eta mehatxuak identifikatzeko.

| BARNE FAKTOREEN ANALISIA | |
|---|---|
| **AHULEZIAK** | **INDARGUNEAK** |
| Zeintzuk dira espazioaren azterketarekin loturiko proiektu bat aurrera eramateko punturik ahulenak?<br><br>- Patioaren forma.<br>- Baloi eremua eta beste guneen arteko babes falta.<br>- Irakaslego osoaren parte hartzea dinamizatze lanetan. | Zeintzuk dira punturik indartsuenak? Heldulekuak?<br><br>- Irisgarritasuna<br>- Gertutasuna<br>- Estaldura<br>- Jarduera anitzak egiteko aukera.<br>- Kiroldegiarekiko gertutasuna (elkar ukitzen daude). |
| *KANPO FAKTOREEN ANALISIA* | |
| **MEHATXUAK** | **AUKERAK** |
| Ikastetxetik kanpo: adib. Beste agenteen inplikazioa, familiak, instituzioak, elkarteak, ...<br><br>- Garbitzaileak (udal langileak dira), ikasleek natur eremutik geletara eramaten duten zikinaren inguruan dituzten kexak direla eta egun euritsuetan ezin da erabili eremu hau. | Ikastetxetik kanpo: adib. Beste agenteen inplikazioa, familiak, instituzioak, elkarteak, ...<br><br>- Guraso elkarteak patioa berrantolatze lanetan parte hartu du.<br>- Udalak obra eta kiroldegiaren erabileran lagundu du.<br>- Herriko eragile ezberdinek jaialdi, topaketa edo bazkariak egiteko erabili izan ohi dute. |

**6.Taula:** Zaldupe ikastetxeko espazioaren azterketa orokorra. (Talde dinamizatzailea, 2019).

### 6.4.2. Haurrek espazioarekiko daukaten interakzioaren behaketa

Zaintzako irakasleek (4, jolasordu bakoitzean) 2 astetan zehar, behaketak egin zituzten. Behaketa ezberdinen artean ez zen ezberdintasun esanguratsurik antzeman eta argazki hau atera zen.




**3.Irudia:** Ikasleen jolasorduetako kokapenaren argazkia. (Zaldupe, 2020).

## 6.5. ESKUHARTZEAREN GARAPENA

Hilabeteko jardueren egutegia egin genuen (non, noiz, zer egin behar den). Hilabete edo lau astetako saiakera hori noiz eta jarduerak astean zehar nola banatu zehaztu zuen talde dinamizatzaileak. Klaustroan adostu zen Aste Santu ondorengo 4 asteetan proposamena aurrera eramatea, irteerak eta Aste Santuko oporrak ekidin asmoz. Zoritxarrez, Martxoaren 12an ikastetxeak itxi beharrean aurkitu ziren Covid-19 birusaren eraginez eta Igande horretan bertan, "Alarma Egoera" ezarri zuten. Hori dela eta, gure proposamena aurrera eramateko aukerarik gabe geratu gara.

Jarduera multzoen aukeraketarako arrazoi nagusia lehia jarduerak gutxitu eta alboetan geratzen diren haurren parte hartzea eta ahalduntzea bilatzea zen.

Joko tradizionalak, ondare kulturalaren parte direlako eta oso material sinple eta ez sexistekin jolasten direlako aukeratu ziren. Horrela haurrek beraien jostailuak egin, moldatu, margotu,… zezaketen, aiton-amonen eta gurasoen txikitako jolasak ezagutu, psikomotrizitate fina landu,…Gainera, joku hauek ikasleen ahalmen ludikoa, genero ezberdinen arteko integrazio eta eskolako elkarbizitza eta hobetzeaz gain, aisialdi aktiboa bultzatzen dute (Varela, 2015).

Adierazpen jarduerak, beraien emozioak eta sentipenak azaleratzeko aukera bezala proposatu ziren. Lehiarik gabeko jarduera hauetan, psikomotrizitatea, erritmoa eta sormena lantzeaz gain, eremu nagusira ekarri nahi ziren ikusgarritasuna emateko. Horrela emakumeenak katalogatuak izan diren jarduerei protagonismoa eman nahi zitzaien (Saldaña, 2018).

Talde jolasak rol ezberdinetan parte hartu eta taldekideekin harremanak sendotzeko bide bezala proposatu ziren. Parte-hartzearen gozamena bilatzea zen helburua, irabaztea edo galtzea prozesuaren ondorio arrunt bezala ulertzeko. Beraien arteko gatazkak konpontzen ikasi eta errespetua, poza, arriskua, txantxa,…bezalako egoeretan trebatzen laguntzen die (Varela, 2015).

Jolas alternatiboak, heziketarako onura ugari dituzte. Batetik, material ez konbentzionalekin burutzen dira; eremu, partaide, iraupen eta arauen inguruan malgutasun handia eskainiz. Bestalde, hezkidetza eta ludikotasuna dute ezaugarri nagusitzat. Hau da, norbere maila hobetzeaz gain primeran pasatzen delako eta sexu bien arteko ezberdintasunik ez dagoelako.

Kooperazio jarduerak, taldekideek elkarri lagunduz, helburu bat lortzeko lankidetza indartzea dute helburu. Konfidantza hobetu, elkarbanatzeko abilezia garatu eta indibidualitatea albo batera uzteko baliagarriak dira. Gainera Nevadako Unibertsitatean 1994an April Bay Hinitzek egindako ikerketak egiaztatzen duen moduan, haurren arteko indarkeria gutxitzen dute (Férnandez, 2019).

Aniztasun jarduerak, proposatu dira behar bereziak dituzten ikasleen egoera ezagutu eta enpatia, elkartasuna, errespetua,…bezalako baloreak lantzeko. Jarduera egokitu hauen bidez ikasle

hauen muga, zailtasun eta aukeraz jabetuko dira gainontzekoak. Zaldupe eskolaren kasuan garun paralisia eta ikusmen urritasuna duten bi ikasle daude. Ondarroan Karenka izena duen elkarte bat sortu zuten, aniztasun funtzionala duten haurren gurasoek eta beraien laguntzaz antolatuko da egokitutako jardueren jolasordua.

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| | JOKO TRADIZIONALAK | ADIERAZPEN JARDUERAK | TALDE JOLASAK | JOLAS ALTERNATIBOA | KOOPERAZIO ETA EGOKITUTAKO JARDUERAK |
| 1.ASTEA | Txapak | Aerobik | Altxor Lapurreta | Fresbee | Harria, papera, guraizea |
| 2.ASTEA | Tabak | Mimika | Zelai Errea | Plater txinatarrak | Hiruko marra |
| 3.ASTEA | Kanikak | Buru haundi eta zango luzeak | Baloi Dorrea | Malabare Pilotak | Erronka kooperatiboak |
| 4.ASTEA | Tronpa edo xiba | Euskal Dantzak | Artzikirola | Diaboloa | Karenka[7] |

**4.Taula:** Jardueren egutegia. (Zaldupe eskola, 2020).

[7] Karenka, Ondarroako aniztasun funtzionala duten umeen gurasoen elkartea da. Beraien laguntzaz antolatuko da egun horretan jolastokiko eremu nagusia.

# 7. ONDORIOAK

Gure ikastetxeetan ez dira edukiak soilik ikasten, jokabideak eta baloreak ere bertan ikasten baitira. Jendartean nagusi diren baloreak transmititzen dira eta generoa eta sexualitatea nabarmentzen dira. Hori horrela ikastetxean bertan etiketatzeak gertatzen dira, eta horrek erakusten du genero gatazka bat bizi dugula jendartean, baita ikastetxean ere. Eta ikastetxeko parte denez gero, jolastokia ere ez da geratzen horrelako gatazketatik kanpo. Beraz, ikaskideen artean sortzen diren hartu-emanen bidez genero arauak barneratzen dira.

Aurretiaz aipatu dena ikusirik, esan daiteke ezkutuko curriculuma bete-betean garatzen dela jolastokian, eta beraz, atseden gune eta sozializazio gune bat izanik, esku hartze handiagoa beharko lukeela heziketaren baitan. Izan ere, genero-estereotipoekin loturiko bereizketak berdintasun eza eta bazterketa eragiten ditu eta pertsona bakoitzaren gaitasunak murriztu. Ikastetxeak bilatzen duena, ordea, guztiz kontrakoa da: ezberdinekiko errespetua, mugarik eta trabarik gabe garatzeko bideak eskaintzea eta berdintasunezko garapena..

Jolastokien erabilerari aurre egiteko hainbat saiakera eta ikerkuntza egin badira ere, ez da lortu guztizko sendotasun duen eredurik, beraz, garrantzitsua da arlo honetako ikerketekin jarraitzea. Merezi du jolastokietan eraldaketa prozesu bati ekitea eta horretan inbertitzea, horrela ikasgelan jorraturiko hezkidetza saioek jolastokian ere izan ahal dute oihartzuna.

Gaur egun, jolastoki batzuetan egiten ari diren aldaketek beste norabide bat hartu dute: erabiltzaileen beharrizanak aintzat hartzea, espazioen banaketa egokiaz hausnarketa egitea, erdigunea eta periferiaren erabilera zaintzea, erabilera anitzak bermatzea, naturarekin kontaktua bilatzea eta erabiltzaile guztientzako aukerak bermatzea.

Hezkuntzako agintariek zenbait plan ezartzen dituzte epe luzera begira, baina horrekin batera bitartekoak eskaini beharko lituzkete epe ertainera begira horrelako aldaketak egin ahal izateko. Beste arlo batzuetan egin ohi duten bezala, jolastokien eraldaketa modu sistematikoan bultzatu behar lukete, diru laguntzen, irakasle liberatuen bidez edo Berritzeguneetako aholkularien bitartez. Hartara, ikastetxeek gogoa izateaz gain pizgarri batzuk izango lituzkete, ez bailuke hain gastu handia suposatuko ikastetxearentzat. Izan ere, eskolak izan dezake nolabaiteko ideia halako proiektuak egiteko, baina bultzadarik ezean baloirik gabeko egun asko izango genituzke. Nahiz eta ekintza horiek aintzat hartzekoak eta positiboak diren, ez dira gaiari bete-betean kolpe egingo lioketen proiektu integral bat.

# 8. BIDE BERETIK IKERTZEN JARRAITZEKO AUKERAK

Lan honek patioen egungo errealitatean sakontzeko eta gaiarekiko ikuspegia handitzeko balio izan dit. Alde batetik, jolastokien balioan sakondu dut eta, beste aldetik, fenomeno sexistan, guzti horrek lana bere osotasunean garatzen lagundu dit. Izan ere, bi atal horiek landu gabe, nekez emango genioke arazo honi erantzun bat. Horrez gain, proposamena burutzean, aurretiaz ez neukan jakintza ugari eskuratu ditut; alde batetik, espazioaren kudeaketa eta diseinuaren garrantzia, beste aldetik, genero ikuspegia eta genero nortasunaren garrantzia. Ikasturtean zehar, lan honetarako tresna berriak lortu eta orokorrean gaia hobeto ezagutzeko balio izan didan “Prest Gara” irakasleen prestakuntzarako ikastaro bat ere egin dut. Proposamena, Zaldupe Eskolako errealitatean kokatzen da, hala ere, diagnosirako tresnak eta proposamenaren ideia gainontzeko ikastetxeetarako ere erabilgarriak izan daitezke.

Bestalde, erreferentzia bibliografikoa osatzearen garrantziaz jabetu naiz. Informazio bilaketa zuzentasunez egitea, informazioa alderatzea eta modu egokian plazaratzea, ezinbestekoa izan da nire lanari oinarri zientifiko sendo bat emateko eta horrela zilegitasun zientifikoa emateko.

Aldaketa guztiak goizetik gauera esparru guztietara hedatzea ezinezkoa dela jakitun, bereziki garrantzitsua izan da gure proposamena ahalik eta gehien zehaztu eta neurgarriak diren aspektuetara mugatzea. Ikastetxeak jolastoki eta hezkidetzaren inguruan urteetako ibilbidea izan arren, oraindik espero zituzten emaitzekin ez daudelako gustura.

Lanaren hasieran jarritako ia helburu guztiak bete dira, nire helburua hezkidetzan oinarritutako jolastokiaren dinamizazio proposamen bat egitea zela kontuan izanda. Alde batetik, marko teorikoa eduki anitzez bete dut, ondoren prozesuan zehar ikastetxean izandako harrera eta egoera erreal batera proposamena egokitzea ere lortu dut. Gainera behaketa bidez, orokorrean ematen diren jarrerak baieztatu ahal izan ditut. Egoera hori zertxobait aldatzen hasteko, ikasleen parte hartzean garrantzia jarriz proposamen oso zehatza eta neurgarria osatu dugu. Ikastetxearen inplikazioa eta gaiarekiko sentsibilizazioa sentitu, ikasleen parte-hartzearen emozioak nabaritu, tresna baliagarriak erabili izana frogatu,.. eta aurrera eraman ezin izan denez, esperotako emaitzak lortzeko proposamena ea egokia zen edo gaizki eginikoak zuzentzeko aukerarik gabe geratu gara. Lan honen emaitzak jasotzea interesgarria izango litzateke hobetze lerroak bilatzeko.

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiet lan honetan zuzenean nahiz zeharka parte hartu duten Zaldupe Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoei, beraien laguntzarekin nire lana erraztu eta proiektua esku zabalik hartzeagatik.

# 9. BIBLIOGRAFIA


Abraldes, J.A. eta Argudo, F. (2008). Utilización del recreo escolar por niños de 4º y 6º de Primaria. Retos, 14, 88-91 or.

Agirre Dorronsoro, L. (2015). *Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen*. Txatxilipurdi Elkartea, Euskal Herria.

Andrés, R. (2017). *El patio escolar basado en la pedagogía Montessori* (Master bukaerako lana). (UVic-UCC). https://repositori.uvic.cat/bitstream/handle/10854/5450/trealu a2017 andres raquel patio. pdf? Sequence=1&isAllowed=y –tik berreskuratua.

Antolín, M., Gil, V., Olaizola, M., Navarro, V., Iglesias, I., eta Rodríguez, A. et al. (2017). *Elkartoki*. https://wearetipi.co/public/docs/patioa_denona_da.pdf -tik berreskuratua.

Auzmendi, J.M., Azpirotz, A., Gorostitzu, A., Mendizabal, A. eta Muñoa, A. (2018). Eskolako patioa. Ikasle guztiei leku egin nahian. *Hik Hasi*, *224*, 11-17.

Bizkaiko Urtxintxa eskola. (d.g. a). *Jarduera Hezkidetzailerako eskuliburua.*

Blanco, N. (2007). Coeducar es educar para la libertad. *Consejería de Educación. Andalucía educative*, *64*, 24-27.or.

Bolt, S. (2018). The Children´s Play Policy Forum A collective voice for children´s play. In *Play England Freedom to play*. http://www.playengland.org.uk/play-builds-children/-tik berreskuratua.

Bonal, X. (2014). *Cuadernos para la coeducación. Cambiar la escuela: la coeducación en el patio de juegos.* Universitat Autónoma de Barcelona: Institut de Ciències de l'Educació. https://bit.ly/2I6XmVl -tik berreskuratua.

Cantó, R., eta Ruiz, L. M. (2005). Comportamiento Motor Espontaneo en el Patio de Recreo Escolar: Análisis de las diferencias por género en la ocupación del espacio durante el recreo escolar. *Revista internacional de ciencias del deporte*, *1*(1), 28-45.or.

Castilla, A. B. (2008). Coeducación: Pautas para su desarrollo en los centros. *Escuela Abierta, 11,* 49–85.or.

Chamorro, I.L. (2010) El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, *1*(3), 19-37.

Chaves, A. L. (2013). Una mirada a los recreos escolares: El sentir y pensar de los niños y niñas. *Revista Electrónica Educare*, *17*(1), 67-87.

http://www.revistas.una.ac.cr/index.php/EDUCARE/issue/current -tik berreskuratua.

Cols, C., eta Fernánde, P. Educación, tierra y naturaleza. In *Educación, tierra, y naturaleza*. Barcelona: Asociación de Maestros Rosa Sensat. (Kongresua). https://elnousafareig.files.wordpress.com/2016/12/educación-y-comunidad.pdf- tik berreskuratua.

Contreras, O.R., Prieto, A., Leon, M.P., eta Infantes, A. (2018). El peso de la educación física en el horario escolar. *Didacticae, 3*, 91-101. http://revistes.ub.edu/index.php/didacticae/article/view/21766/23451 - tik berreskuratua.

Corona, Y., eta Gáañ, F. (2009). *Estrategias participativas para niños: algunos aportes para escuchar a los niños y realizar consultas infantiles* . México: Universidad Autónoma Metropolitana.

Elkartoki. (2016). Elkartoki proiektua: Patioa denona da. *Aldiri*, *3*(27), 41–43.or.

Epstein, D., Kehily, M., Mac an Ghaill, M., eta Redman, P. (2001). Boys and Girls Come Out to Play: Making Masculinities and Femininities in School Playgrounds. *Men and Masculinities*, *4*(2), 158–172.or.

Eusko Jaurlaritza. (2013). *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://bit.ly/2IiDk94 -tik berreskuratua.

Eusko Jaurlaritza. (2016ko Urtarrilaren 15a). 236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 9.zkia. 1-279.or.

Eusko Jaurlaritza. (2019ko maiatzaren 17a) 2019/2341 Agindua, zeinaren bidez dei egiten baitzaie EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako (L2 Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta). *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 92.zkia. 1-18.or. https://bit.ly/30SEMIY -tik berreskuratua.

Fernández, M., eta Eizaguirre, N. (2014). Lunes, miércoles y viernes sin fútbol en el patio. Elcorreo.Com. https://www.elcorreo.com/alava/20140106/masactualidad/sociedad/lunes-miercoles-viernes-futbol-201401051738.html –tik berreskuratua.

Fernández, A. (2019). Beneficio de los juegos cooperativos para los niños, Eresmamá. https://www.google.com/amp/s/eresmama.com/beneficio-juegos-cooperativos-ninos/amp/ -tik berreskuratua.

Fleming herri eskola. (2017). *Fleming eskolan Jolaslekua berria egin dugu!* [Bideoa]. http://flemingvillabona.blogspot.com/2017/11/fleming -tik berreskuratua.

Freixas, A. (2012). La adquisición del género: el lugar de la educación en el desarrollo de la identidad sexual. *Apuntes de Psicología*, *30*(1-3), 155-164.or.

Fresnedo, I. eta Gabilondo, J. (2018). *Betaurreko moreen gida*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Frost, J. (2012). Evolution of American Playgrounds. In *Scholarpedia 7*(12), 30423. Austin (Texas). http://www.scholarpedia.org/article/Evolution_of_American_Playgrounds -tik berreskuratua.

Gallastegui, I. (2018). La igualdad llega a los patios de colegio: ¿es el fin del fútbol en los recreos?. *El Correo*. https://www.elcorreo.com/sociedad/igualdad-llega-patios-20180326164849-nt.html -tik berreskuratua.

Garaigordobil, M. (2003). *Intervención psicológica para desarrollar la personalidad infantil: juego, conducta prosocial y creatividad*. Madrid: Pirámide.

Garay, B., Vizcarra, M. T., eta Ugalde, A. I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. Teoría de la Educación. *Revista Interuniversitaria*, *29*(2), 185-209.or.

García, P. (2016). *Proyecto MICOS. mREG madrid REGENERA*. Madrid. http://madridsalud.es/wp-content/uploads/2016/04/MICOSRegeneracion-urbana.pdf -tik berreskuratua.

Giménez, M. (2018 a). El patio del colegio, donde se empiezan a sembrar las desigualdades de género. *Eldiario.es*.https://www.eldiario.es/cv/colegio-empieza-sembrar-desigualdad genero_0_820668173.html - tik berreskuratua.

Giménez, M. (2018 b). Patios coeducativos para combatir la 'dictadura' de la pelota en los colegios. *Eldiario.es*. https://www.eldiario.es/cv/Patioscoeducativos-combatir-dictaduracolegios_0_817868318.html - tik berreskuratua.

Gómez, H. (1995). *Valor pedagógico del recreo*. Bogotá: Cooperativa Editorial Magisterio.

Gras, P., eta Paredes, J. (2015). El recreo ¿sólo para jugar?. *EmásF, Revista Digital de Educación Física, 36*, 18–27.or.

Hart, R. A. (1993). *La participación de los niños: de la participación simbólica a la participación auténtica*. Editorial Nueva gente, Colombia.

Hik Hasi. (2016). Jolas sinbolikoa, adimenaren oinarri. *Hik Hasi*. http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20160808/jolas-sinbolikoaadimenaren-oinarri -tik berreskuratua.

Jarret, O. (2002). Recess in Elementary School: What Does the Research Say?. *ERIC Digest*, 1-7.or.

Lafuente, A., eta Horrillo, P. (d.g.) *Como intervenir un patio escolar*. La aventura de aprender. http://laaventuradeaprender.intef.es/documents/10184/67760/como-intervenir-un-patioescolar -tik berreskuratua.

Lancaster, P. (2006). RAMPS: *A framework for listening to young children* . London: Daycare Trust.

Larramendi, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero-rolak: Diseinuaren eragina generonortasunaren eraikuntzan. *Aldiri Arkitektura eta Abar*, 3(27), 18-21. http://www.unibertsitatea.net/otarrea/ingeniaritza-eta teknologia1/arkitektura/27_larramendi_eskoletako-jolastokiak-eta-genero/at_download/file - tik berreskuratua.

Marín, I., Molins, C., Martínez, M., Hierro, E., eta Aragay, X. (2010). *Els patis de les escoles: espais d'oportunitats educatives*. Bartzelona: Edició a cura de Fundació Jaume Bofill. https://bit.ly/2K4D4OS -tik berreskuratua.

Marín, I. (2013). Los patios escolares: Espacios de oportunidades educativas. Rayuela, *Revista Iberoamericana sobre niñez y juventud en lucha por sus derechos*, *4*(8), 88– 94.or.

Mas, J. (2019). Los expertos apuestan por eliminar la pelota de los patios para combatir la desigualdad entre los escolares. *INFORMACIÓN*

https://www.diarioinformacion.com/elche/2019/05/15/expertos-apuestaneliminar-pelota-patios/2148548.html -tik berreskuratua.

Mazón, V., eta García, M. (2005). Los recreos más divertidos. *Retos. Nuevas Tendencias En Educación Física, Deporte y Recreación*, *8*, 32-42. http://www.redalyc.org/pdf/3457/345732273005.pdf - tik berreskuratua.

Molins, C. (2012). Patios escolares y diversidad sociocultural en Cataluña. Una investigación sobre usos y posibilidades para el juego y el aprendizaje. *Papers: Revista de Sociología*, *97*(2), 431-460.or.

Muñoz, D. (2003). *Participar también es cosa de niños*. Guía didáctica para el profesorado.

Navarro, V. (2013). Playgrounds del siglo XXI : una reflexión sobre los espacios de juego de la infancia. *Arquitectonics: Mind, Land & Society*, *1*(25), 189-202.or.

OPS eta OMS. (2019). *Programas durante el recreo escolar pueden aumentar los niveles de actividad física en los niños.* https://www.paho.org/hq/index.php?option=com_content&view=article&id=9289:2014recess-programs-can-boost-activity-levels-school-age-children&Itemid=1926&lang=es –tik berreskuratua.

Osoro, A. (2016). *Jostailuak, berez, ez dira txarrak edo onak; dira egokiak edo ez.* [Bideoa] https://goiena.eus/debagoiena/1480950646085-arantxa-osoro-jostailuak-berez-ez-dira-txarrak-edo-onak-dira-egokiak-edo-ez&ved= - tik berreskuratua.

Pellegrini, A. D., eta Davis, P. L. (1993). Relation between children's playground and classroom behavior. *British Journal of educational psychology*, *63*(1), 88-95.or.

Pica, R. (2008). 7 Reasons why kids need recess. https://bit.ly/2HSZdiZ - tik berreskuratua.

Radio Vitoria. (2019). *Entrevista a nuestro profesor Igor García en Radio Vitoria sobre los patios igualitarios* [Radio]. Vitoria- Gasteiz. https://colegiosanprudencio.net/es/noticias/2019/03/13/entrevista-a-igor-garcia-en-radiovitoria-sobre-los-patios-inclusivos –tik berreskuratua.

Rosete, M. G. (2013). Los juegos en la primera infancia. Una mirada desde la perspectiva de género. *Rayuela, Revista Iberoamericana sobre niñez y juventud en lucha por sus derechos*, *4*(8), 9-13.or.

Saldaña, D. (2018). Reorganizar el patio de la escuela, un proceso colectivo para la transformación social. *Hábitat y Sociedad*, *11*, 185-199. Universidad de Sevilla. http://dx.doi.org/10.12795/HabitatySociedad.2018.i11.11 -tik berreskuratua.

Sánchez, A., eta Iglesias, A. (2017). Coeducación: feminismo en acción. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas*, *2*(1), 1-6.or.

Serra, J. (2014). *Análisis de la práctica de actividad física durante el recreo escolar en adolescentes de la provincia de Huesca*, *31*(4), 257-262. Barbastro (Huesca): IES Martínez Vargas eta Zaragozako Unibertsitatea. http://archivosdemedicinadeldeporte.com/articulos/upload/or04_162.pdf -tik berreskuratua.

Setién, M. (2017). La hora de patio debería ser considerada una asignatura más. *ABC educación*. https://www.abc.es/familia/educacion/abci-hora-patio-deberia-considerada-asignatura-mas201703131355_noticia.html -tik berreskuratua.

Subirats, M., eta Tomé, A. (2007). *Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación*. Bartzelona: Octaedro.

Ttipi Studio. (2016). *Co-diseñando un patio para todas*. Bilbao: Ttipi Studio Koop.Elk.Txikia.

Tomé, A. (2017). Estrategias para elaborar proyectos educativos en las escuelas. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas*, *2*(1), 89-116.or.

Torres, J.A. (2019). El colegio público que ha desterrado la pelota. *El País*. https://elpais.com/sociedad/2019/05/10/actualidad/1557488263_130279.html –tik berreskuratua.

Vallejo, O. (2015). La crisi condiciona l´accés dels infants al lleure educatiu. En *Diari Ara Criatures* (Barcelona), azaroaren 21a.

Varela, Apolinar (2015). Los juegos populares como herramienta para la convivencia en los recreos. *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, *2*, 34-38.or.

Vives, M. (2014 a). Eskola patioak eta generoaren arteko harremanak. https://projekta.es/eskola-patioak-eta-generoaren-artekoharremanak/ -tik berreskuratua.

Vives, M. (2014b). elgoiBERDIN: Jolasa eta generoa Elgoibarko kaleetan. https://projekta.es/elgoiberdin-jolasa-eta-generoaelgoibarko-kaleetan/ -tik berreskuratua.

Vives, M., eta Galarraga, P. (2015). Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetza. *M8 Monografikoa*, 20-23. https://issuu.com/stee-eilas/docs/m8monografikoa_df –tik berreskuratua.

Wortham, S., eta Frost, J. (1990). *Playgrounds for Young Children: National Survey and Perspectives*. (or. 158, 159). https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED326492.pdf –tik berreskuratua.

Zucchi, D. G. (2007). *Patio y pedagogía. La cultura como principio*. Argentina.

# ERANSKINA

## 1. ERANSKINA: ESPAZIOAREN ERABILERA JOLASTOKIAN

| Kategoria | | Erantzunen laburpena |
|---|---|---|
| HH | **Jarduera bereizgarria: Futbolaren hasiera goiztiarra** | Futbola mutilen jarduera bereizgarri bezala oso goiz sartzen da jolastokietan |
| | **Rol ezberdinen hasiera** | Rol ezberdinak ezartzen dira etapa honetan: Mutilak aktiboagoak, neskak pasiboagoak |
| | **Oso gutxi jolasten dute elkarrekin** | Mutilen eta nesken arteko distantzia etapa honetan hasten da, jolas ezberdinak |
| LH | **Futbolaren nagusitasuna** | Mutilek gehienbat futbolean aritzen dira, neskak ikustezinak dira |
| | **Jolastokia eremu maskulinoa** | Jolastokien espazioa mutilena da, mutilek eremu zabalak behar dituzte kirol jarduerak eta jolasak egiteko |
| | **Rol estereotipatuak egonkortzen dira** | Mutilak aktiboagoak eta neskak pasiboagoak |
| | **Neskak transgresoreak** | Rolak aldatzekotan neskak dira mutilen jardueretan parte hartzen dutenak, transgresorak direnak |
| | **Irakasleriaren zati handi batek onarpena "natural"tzat** | Irakasleek normala ikusten dute rol banaketa hau, eta ez dute genero estereotipoak somatzen |
| | **Irakasleriaren gutxieneko batek kontzentziazioa** | Irakasleriaren batzuk genero estereotipo hauek eta asimetriak detektatzen dituzte jolastokietan |
| DBH | **Jolastokiaren erabilpen urriagoa** | DBH-ko ikasleek gero eta guxtiago erabiltzen dute jolastokia jolasteko |
| | **Mutilen eremua** | Jolasten duten kasuetan jolastokiaren espazio zabalena mutilek erabiltzen dute futbolerako, neskak eserita gelditzen dira |
| | **Irakasleriaren onarpena "natural"tzat** | Irakasleriaren gehiengoak naturala ikusten du erabilpen hau eta ikasleen interes "naturalak" errespetatu behar direla defendatzen dute |
| | **Irakasleriaren zati batek desoreka ikusten du** | Irakasleriaren gutxiengo batek jolastokiaren erabilpenean desoreka bat dagoela ikusten du eta zerbait egin beharko litzatekeela pentsatzen du. |

## 2. ERANSKINA: EAE ETA INGURUKO ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK

- KURUTZIAGA ikastola (Durango)
  https://kurutziagaikastola.eus/proiektuak/kanpo-espazioaren-erabilera/
- KARMELO ETXEGARAI Eskola (Azpeitia)
  http://elkartoki.eus/2017/09/01/azpeitiko-patioaren-eraldaketa/
- ELIZALDE herri Eskola (Oiartzun)
  https://www.elizalde.eus/2020/01/16/transpatioa/
- LEKEITIOKO Eskola (Lekeitio)
  https://tbx.eus/7BeHpu2UpSE
- MAESTRO GARCIA RIVERO Eskola (Atxuri-Bilbo)
  https://es-es.facebook.com/207712322769309/videos/auzolanean-atxuriko-patioaeraldatzen-haciendo-que-el-patio-sea-m%C3%A1s-participativ/370986210179495/
- LASKORAIN ikastola (Tolosa)
  https://www.laskorainikastola.eus/node/7851
- OSOTU LANBARRI ikastetxea (Gueñes)
  https://osotulanbarri.org/instalaciones/
- URDUÑAKO Eskola (Urduña)
  https://www.flickr.com/photos/123328124@N04/41524835625/in/photostream/
- KUETO Eskola (Sestao)
  http://www.kuetoeskola.com/noticia_ampliada.asp?id=420&op=1
- JASO ikastola (Iruñea)
  https://www.jasoikastola.com/auzolanean-haur-hezkuntzako-patioa-aldatzen/
- SAN FERMIN ikastola (Iruñea)
  https://www.sanferminikastola.com/albisteak/patioa-eraldatu-dugu-auzolanean_2018
- ARANGOITI ikastola (Irunberri-Lumbier)
  http://arangoiti-ikastola.eus/gure-hezkuntza-proiektua-patioa-eta-ingura/
- Baratzeko Pikua jolagunea (Oñati)
  https://goiena.eus/oinati/1548766316235-erabilgarri-dago-baratzeko-pikua-jolasgunea

## 3. ERANSKINA: ARAUDI MAILAKO ESPARRUAK

Patioaren eraldaketa garatzea planteatzen duten ikastetxeek araudi mailako esparrua eta dagokien Autonomia Erkidegoan indarrean diren protokoloak hartu beharko dituzte aintzat. Jarraian, erreferentzia gisa erabilitako araudia, gidak eta protokoloak datoz:

- Abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUA, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016/01/15). https://www.euskadi.eus/y22bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600142a.pdf

- Abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUA, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016/09/23). https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141a.pdf

- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharren inguruko 201/2008 Dekretua aplikatzeko gida. (EHAA, 2008/12/16). http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif5/es_2080/adjuntos/derechos_debe res_c.p df

- Eskola-jazarpenean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan jarduteko protokoloa [2015]. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. https://www.berrigasteiz.com/index-es.php#desc20

- Ikastetxeko Bizikidetza Plana egiteko gida [2016]. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_convi ven/ad juntos/6002016001c_Pub_EJ_elkarbizitza_plana_c_web_probisionala.pdf

- Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako eskuliburua [2016] http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_convi ven/ad juntos/coeducacion/9202016004c_pub_ej_genero_indarkeria_prebentzioa_c.pdf

- Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu abusu egoeretarako, eta hezkuntza arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetza eta koordinaziorako[2016]. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/es_5613/adjuntos/Protocolo_Edu cacion__15_noviembre_2016.pdf

- Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru-Plana, 2019-2022 [2019]. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu _inc/ad juntos/16_inklusibitatea_100/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_c.pdf

- Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko [2016]. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzua. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig2/es_lgtb_fob/adjuntos/Protocolo_T rans_2 016_c.pdf